


# JAKINGARRIAK

DOKUMENTAZIO ZENTRUA 0-7 urte – IRAKASLE ESKOLA – Eskoriatza



---

**HAUR-ESKOLAK  
ETA HEZIKETA**

---

**24 / 25. ZENBAKIAK**

1993ko Martxo

# jakingarriak

Eskoriatzako Irakasle Eskolan kokatuta dagoen Dokumentazio Zentruko informazio-tresna da.

Dokumentazio Zentruak, Eskolaren berrikuntza eta eskolaren euskalduntze prozesuan, lagungarriak izan daitezkeen materialak eskaini nahi ditu; horregatik, sortu eta bildu ditugun baliabideak honako irizpide hauen arabera dira:

- Irakaskuntza funtzionala ahalbidetzen duten baliabideak.
- Haurren zeregin aktiboa bultzatzen duten baliabideak.
- Komunikaziorako eta elkarrekintzarako espazio aproposak sortzen dituzten baliabideak.

Nahiz eta Dokumentazio Zentruaren esparrua 0-7 urte bitartekoa izan, badu adin honen mugetatik ateratzen den arlo bat, hizkuntzaren didaktikarena hain zuzen.

“JAKINGARRIAK” aldizkarian eskaintzen diren materialak jasotzeko bide ezberdinak daude:

- Liburutegi-zerbitzua: zerbitzu honen bidez liburuen mailegua egin daiteke.
- Fotokopiak: artikulu, dokumentu eta baliabide batzuk eskuratzeko bidea eskaintzen du.

*Argitaratzailea:* Eskoriatzako Irakasle Eskola

*Laguntzailea:* Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

*Erredakzioa:* Eskoriatzako Irakasle Eskola

20540 Eskoriatza

Tfnoa: 714157

Faxa: 714032

*Zuzendaritza:* Nerea Alzola eta Mariam Bilbatua

*Kolaboratzaileak:* Juanjo Otaño, Izaskun Madariaga, Josetxo Etxeberria.

*Azala:* Beatriz Arregi

*Maketazioa:* Marisa Pagonabarraga

L.G.: D-981/92



# AURKIBIDEA :

---

## Berri bibliografikoak

- Liburu berrien albisteak ..... 4. orr.
- Aldizkarietako zenbait artikuluren erreferentzia laburrak ..... 5. orr.

## Gai monografikoa

Haur-Eskolak eta Heziketa ..... 17. orr.

## Esperientziak

- BATZU: "Haur Hezkuntza Euskal Autonomi Elkarte" ..... 20. orr.
- MENDIZABAL, M.: "Hezkuntz Erreformaren aplikazioa: amets baten amiltzea" ..... 23. orr.
- VILA, I.: "Mintzairaren garapena" ..... 25. orr.
- MOLINA, L.: "Nortasunaren garapena bizitzako lehen urteetan" ..... 29. orr.
- MADARIAGA, I.: "Talde bakoitzeko ezaugarri nabarmenenak" ..... 40. orr.
- ETXEBERRIA, J.: "Txokoak Haur-Eskolan" ..... 41. orr.
- ARRASATEKO UMEZAINZA: "Egokitze epea. Haur-Eskoletan umearen integrazioa errezteko esperientzia bat" ..... 45. orr.
- MADARIAGA, I.: "Kanpoko espazioa heziketa arloan" ..... 49. orr.
- THIÓ DE POL, C.: "Gurasoen eta hezitzaileen arteko harremanak" ..... 52. orr.
- COLS, C.: "Baloredun gauzatxoak" ..... 55. orr.

## Baliabideak

Haur txikientzako liburu-gida (0-7 urte) ..... 59. orr.

---

# liburu berrien albisteak

**AJANGIZ SANCHEZ Rafael, GAUNA ALONSO Eduardo, GURPEGUI RUIZ M<sup>a</sup> Jesus:** "De guarderías a escuelas infantiles. Análisis estructural de las guarderías infantiles de Bizkaia". Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Lan eta Gizarte Segurantzza Saila. Gasteiz, 1991.



Ikerketa honen helburua Bizkaiko 0-3 tarteko haurren eskolatzeari buruzko datu esanguratsuak biltzea da. Datuez gainera, lan honen egileek Haur-Eskola (Haur-Eskola deituko diogu denok lortu nahi genukeen benetako hezkuntza eremuari) nolakoa izan beharko litzatekeen adierazteko ideia batzuk ematen dituzte. Horretarako, Haur-Eskola ere-

dugarri horrek izan beharko litzuzkeen erizpideak jorratzen dira eta kontrajarri egiten dira Bizkaian errealitateak erakusten dizkigun emaitzekin, arloz-arlo:

#### Honako arlo hauexek jorratzen dira liburuan:

- Bizkaiko haurtzaindegien egituraren egoera, alderdi guztietatik begiratuta: kanpo eta barruko arkitektura, hornikuntza, zerbitzuak, hezkuntza eta urgazpenaren helburuak, diru gorabeherak, eta abar.

- Zuzendaritzetakoek eta hezitzaileen taldeek bakoitzaren egitura propioari eta orokorrari buruz duten iritzia.

- Hezitzaileen lan egoeren, hezkuntza eta urgazpenarako estrategien eta helburu profesionalen azterketa.

- Gurasoen asmoen, helburuen eta egoera sozioekonomiko eta kulturalararen azterketa.

#### Liburuaren atalak

Bi atal bereizi ditu, elkarrekiko lotura handia dutenak: lehen atalak aurretiazko irizpide kontzeptualak erakusten ditu eta bigarren atalak sektorearen azterketa egiten du, Bizkaian bertan eginiko landalan batean oinarrituta.

Aurretiazko irizpide kontzeptualetan, haurren lehen hiru urteetan garapenak duen eboluzioari eta tarte horretan norberenganatzen diren gaitasunei buruzko saiakeratxo bat aurkezten da. Eta hori egiteko, hezkuntzako etapa horren ezaugarriak definitzen dituzte eta etapa horren garrantzia nabarmendu.

Gero, haur-eskolaren historia azaltzen da hastapenetatik, laburki, eta Bizkaian gaur eguneko egoera zein den erakusten da, gaineratik.

Bigarren atalaren izenburua "Haurtzaindegietatik Haur-Eskolara" da, alegia, "dagoenetik egon behar lukeenara". Bertan, orain dagoena oinarritzat hartuta, gutxienezko betekizun batzuk finkatzen dira, Haur-Eskolak era arrazoi-tuan funtziona dezan.

**SOLE Isabel:** "Estrategias de lectura". Graó ICE Universitat de Barcelona. Barcelona 1992.

Izenburuak argi uzten du liburuan garatuko den gai nagusia: Irakurketaren eragiketak, hau da, testuak ondo ulertzeko jarrai daitezkeen bideak zeintzuk diren, honekin batera testuen ulermena oztokatzen duten ekintzak ere aztertzen direlarik.





Liburu honetan egiten diren proposamen didaktikoak aprendizaiaren ikuspegi konstruktibistan kokatzen dira, eta ondorioz, perspektiba honen zenbait kontzeptu azpimarratu eta azaltzen ditu autoreak.

Aprendizaiaren kontzeptzio orokor honetatik abiatuta, irakurketaren aprendizaiarako ere balio-garriak diren zenbait printzipio garatzen ditu autoreak: Irakurketa-idazketari

buruz ikasleek dakitena aprobetxatzea, irakurketaren helburu guztiakin lotutako ekintzak antolatzea, kodeen ikasketa testu errealean oinarritzea...

Aipatutako perspektiba berean, helduen eragina azpimarratzen duten autoreen aportazioak jasotzen ditu liburuaren egileak, bereziki Vigotskyk sortutako "garapen hurbileko unea"ren kontzeptutik atera daitezkeen zenbait printzipio didaktiko azaltzen dituelarik.

Marku teoriko honetan, eta ulermenaren inguruan, zenbait autorek egin dituzten aportazioetan oinarrituz, testuen ulermena ziurtatuko duten prozeduren deskribapena egiten da; halaber, bakoitzaren inguruan balio-garriak izan daitezkeen hainbat proposamen didaktiko azaltzen ditu eta salgai dauden testu liburuetan "ulermen ariketak" izenburupean maiz azaltzen diren ariketen balio eza arrazoitzen du.

Ulermenaren prozedurak irakurketaren hiru uneren inguruan azaltzen ditu autoreak: irakurri aurretik, irakurri bitartean eta irakurri ondoren.

Une horietan, irakurleak, bere aurrezagupenen arabera, irakurketaren helburuen arabera eta testuan jartzen duenaren arabera eraikitzen ditu testuen esanahiak eta hau da hain zuzen liburu honen egilearentzat testu bat ulertzea.

# aldizkariak

## CUADERNOS DE PEDAGOGIA

CUADERNOS DE PEDAGOGIA 203, 1992ko maiatza

**MARTINEZ, J.:** "Siete cuestiones y una propuesta", 8-13 or.

Material kurrikularren garrantzia hezkuntzaren kalitatean.

**MARTINEZ, J.:** "¿Cómo analizar los materiales?", 14-18 or.

Artikulu hau material kurrikularren edo gelan erabiltzen den edozein baliabideren azterketarako tresna praktikoa da.

**MARTINEZ, J.:** "Para saber más", 20-22 or.

Material kurrikularrak: Bibliografía

**ALVAREZ-URIA, F.:**

"Micro-física de la escuela", 55-59 or.

Autoreak, Michel

Foucaulten obra irakurtzeko proposatzen digu.

**JIMENEZ, J., BERNAL, J.L.:** "Educación infantil: primeros pasos", 68-70 (La Agenda de la Reforma).



## CUADERNOS DE PEDAGOGIA 204, 1992ko ekaina

**DIASNAVARRO, M.C.:** "Escarabajos en el patio", 36-37 or. Inguruko bizitza abiapuntutzat hartuz, haur txikiekin Natura- ezagutzaren lanketa.

**BUIZA, A.:** "A partir de las galletas", 38-39 or. Osasuna eta kontsumoaren hezkuntza Haur Eskolan.

**BELTRAN, F., SAN MARTIN, A.:** "Hacer posible la democracia organizativa. Autoevaluación escolar", 66-71 or. Autoebaluazioak, gogoeta sakona eta interakzioa eskatzen duelako, irakasleei aukera ematen die izan duten lana berrikusteko.



**PEREYRA, M.A.:** "La construcción social del tiempo escolar", 8-12 orr. Bizi dugu ikasi dugun denbora... Nola aurkitu eskolako denboraren antolaketa aberatsa eta atsegina egiten?

**PEREYRA, M.A.:** "La jornada escolar en Europa", 14-21 orr.

**PEREYRA, M.A.:** "España: conclusiones para un debate", 24-26 orr.

**PEREYRA, M.A.:** "Para saber más", 27-28 orr. (Bibliografía)



## CUADERNOS DE PEDAGOGIA 205, 1992ko uztaila-abuztua



**Gai monografikoa:** "¿Niños filósofos?", 7-30 or.

... Eskola eta gela pentsaera, gogoeta, jakinmina bultzatzeko espazioak, .... izan beharko lirateke.

... Haurrak filosofikoki pentsatzeko gai dira.

**Dosierra:** "Cien medidas y una utopía", 33-66

Berriztapen pedagogikorako elkarteek, Eskola Publikoari buruz dokumentu bat proposatzen dute, hezkuntzaren kalitatean eta eskolaren eta irakasleen rolari buruzko debategen parte hartu nahi dutelarik.

## CUADERNOS DE PEDAGOGIA 207, 1992ko urria

**PEREZ, A.I.:** "Una escuela para recrear la cultura", 48-54 orr. Angel Pérez irakasleak, irakaskuntzaren kalitateaz eta ikasle goarengan daukan eraginari buruzko erreflexioa egin dezagun proposatzen digu.

**BOLIVAR, A.:** "La evaluación de centros", 80-84 orr. Ikastetxeen ebaluaketari buruzko bibliografia komentatua.



## CUADERNOS DE PEDAGOGIA 208, 1992ko azaroa



**CLABO, L., GILBERT, I., LOPEZ, C.:** "Los lenguajes artísticos" 8-10 orr.

Autoreen ustez, eskoletan arte hezkuntza lantzeko erabili izan den era, azalezkoa eta heterogenoa izan da. Artikulu honetan, autoreek, arte hezkuntza integralaren ikuspuntutik, Erreformako Haur Hezkuntza, Lehen Mailako eta Bigarren Mailako hezkun-

## CUADERNOS DE PEDAGOGIA 206, 1992ko iraila

**Monografikoa:** "Imaginar otro tiempo escolar" Lanaren edo eskolaren "denbora"ri buruzko hainbat gogoeta.

tzako kurrikuluma aztertzen dute.

**ROSER, J.:** "Reforma Educativa y Educación Artística" 12-17 orr.

Autoreak, Hezkuntz Erreformak Arte Hezkuntza arloan zein aldaketa dakarren planteatzen du. Planteamendu honetatik beste batzuk sortzen dira, batez ere gai honen ezagupen teorikoan sakontzeko.

**RODRIGUEZ, M<sup>a</sup>. C.:** "Leer y escribir" 38-40 orr.

Bartzelonako industri zonaldeko Haur Eskolako hainbat gelatan (3 urte), haurrak eskolara joan baino lehen irakurketa eta idazketari buruz dakitena azaltzen da. Honen ondoren, komunikazio, sormen eta informazio bilaketarako espazio ezberdinak proposatzen dira.

**CORCOLES, M<sup>a</sup>. V.:** "Sombras navideñas" 42-44 orr.

Valentziako ikastetxe batean, itzalez buruturiko antzerki baten bidez Gabonetako historia polit bat egin da. Artikulu honetan, istorioaren garapena 4 ataletan (eskema) adierazten da, antolaketa, teknikak eta erabilitako materialak ondo zehaztuz.

**PEREZ, E. J.:** "A vueltas con el malestar docente" 76-79 orr.

Autoreak, irakasleen krisi eta ondoeza azaltzeko, azterketa, datu eta gatazken berri aztertzen du. Fenomeno honek, urte batzuk dela Europari eragiten dio, eta hainbat kasutan era alarmagarrian.

## CUADERNOS DE PEDAGOGIA 209, 1992ko abendua



**AUTORES VARIOS:** "Talleres y creatividad" 32-33 orr. Cartagenako "Parvulario Jardines" ikastetxe publikoko irakasleek bultzaturiko proiektuak, ikasgela eta ordutegi banaketa tradizionalarekin apurtu du. Tailer integraletan, ziklo eta maila bakoitzeko programazio bateratu baten barruan esperientziak, espazioak eta materialak konparatzen dira.

**ROUCO FERREIRO, J. F.:** "La vaca verde" 34-35 orr.

Coruñako herri txiki bateko haur eskola batetan, behia interesgune bezala duen ekintza bat hasten da. Horrela, mota guztietako galderak eta ekintzak sortzen dira. Hauekin, gaitasun psikomotrizak, afektiboak eta intelektualak garatzen dira.

**BRAGA, G., CASCANTE, C.:** "Stephen Kemmis la unión entre teoría y práctica" 56-60 orr. Stephen Kemmisi egindako elkarrizketa.

Stephen Kemmis Australiako Deakin Unibertsitateko irakaslea da. Bere lan garrantzitsu batzuk gaztelerara itzuliak izan dira: "El currículum más allá de la teoría de la reproducción; Teoría crítica de la enseñanza (con W.Carr)"; eta "Cómo planificar la investigación-acción (con R.McTaggart)". Irakaskuntzako teoria kritikoaren bultzatzaileetariko bat da.

## L'ECOLE MATERNELLE

### L'ECOLE MATERNELLE 9, 1992ko maiatza-ekaina



**BOUCHER, M. J.:** "Ce que la connaissance de la psychanalyse peut apporter aux enseignants de l'école maternelle", 19-24 orr.

• Gorputza

**ROCHETTE, C.:** "Autour de notre corps", 25-26 orr.

• Matematika

**DESIGNES, R.:** "Le jeu des piétons", 27-28 orr.

**BONTEMPS, Ch.:** "La construction du nombre", 29-34 orr.

• Aho-hizkuntza

**CALAMAND, G.:** "L'imaginaire en jeu", 39-40 orr.

• Irakurketa-idazketa

**HEQUET, F.:** "Lecture: A partir d'un programme de télévision", 59-60 orr.

• Esperientzi arloa

**DEFER, J.:** "Des chemins à suivre", 45-46 orr.

**CLERICE, M., LANDRY, C.:** "L'aquarium", 53-54 orr.

• Musika

**ROYER, G.:** "La pédagogie Kodaly", 51-52 orr.

**DUBOSCQ, F.:** "La respiration et le silence", 57-58 orr.

• Plastika

**MARCHAL, J.:** "Les expressions du visage", 61-62 orr.



## L'ÉCOLE MATERNELLE 1, 1992ko iraila



**GILABERT, H.:** "Apprendre en imitant? Un entretien avec Fayda WINNYKAMEN.", 9-11 orr.

• Haur liburua / Ipuina  
**BATZU:** "Le livre maison", 33-34 orr.  
**MARTY-MINIÈRE, J.:** "Ça commence ainsi...", 35-36 orr.  
**FOLCH, T., GARCIA, M.:** "Recherche d'informations sur le jardinage", 41-42 orr.

• Esperientzi arloa / Teknologia  
**MARTIN, M.:** "Construction d'obstacles pour un jeu de l'oie", 37-38 orr.  
**MOUCHEL, S.:** "Emballage-déballage", 39-40 orr.  
**CHAMBRON-MACLET, F.:** "Approche du concept de vivant", 43-44 orr.

• Soinketa  
**LEFEVRE, F.:** "Action avec le petit matériel : ramper", 49-50 orr.

• Matematika  
**HEUDE, F.:** "Démarrer les activités mathématiques en début d'année scolaire", 51-52 orr.

• Musika  
**GALLEN GAY-PERRET, B.:** "Un espace musical", 53-54 orr.

## L'ÉCOLE MATERNELLE 2, 1992ko urria

**VIAUX, C., PY, G.:** "La neuropsychologie du cerveau au secours de la pédagogie?", 3-8-orr.

**DURAND, C.:** "L'évolution pédagogique de l'enfant: le mimisme chez l'enfant", 17-19-orr.

**PERROT, J.:** "Lectures du tout petit: jeux et enjeux", 21-24 orr.

• Haur Liburua  
**MARTY, J.:** "Quelle histoire te fait sourire?" 27-28 orr



• Esperientzi Arloa / Informatika  
**MARTIN, M.:** "Construction d'obstacles pour un jeu de l'oie (suite)", 31-32 orr.

**CHAMBON, F.:** "Questionnaire individuel sur le vivant", 37-38 orr.

• Irakurketa-Idazketa  
**FOLCH, T., GARCIA, M.:** "Traitement des informations", 35-36 orr.

• Informatika  
**HANSEL, N.:** "Écrire sur l'ardoise se "Composition"", 39-40 orr.

• Musika  
**GALLEN, B.:** "Rythmes et sons", 41-42 orr.

• Soinketa  
**LEFEVRE, F.:** "Éducation physique: Action avec le petit matériel", 43-44 orr.

• Matematika  
**HEUDE, F.:** "Structures additives des nombres de 2 à 4", 45-46 orr.

• Ipuina  
**REGRETTIER, A.:** "Conte", 49-50 orr.  
 • Jolasa  
**REMBAULT, D. M.:** "Jeux à règles", 53-54 orr.

## L'ÉCOLE MATERNELLE 3, 1992ko azaroa

**PY, G.:** "Les pionniers de l'école maternelle", 5-6 orr.

**CHEZ, M.:** "L'évolution pédagogique de l'enfant: le jeu et le savoir", 9-10 orr.

**DEUNFF, J.:** "La vie et le vivant à l'école préélémentaire et dans la formation des maîtres", 17-22 orr.

• Esperientzi Arloa  
**CURVEILLÉ:** "Cuisine et art plastique", 25-26 orr.  
**COQUAT, M.:** "La maison du lapin: projet de construction", 27-28 orr.  
**FOUCH, T.:** "Jardiniers en colottes courtes", 35-36 orr.  
**CHAMBRON, M. F.:** "Biologie animale: un élevage d'artémias", 37-38 orr.



MARTIN,M.:“La parachute”, 45-46 orr.

• Haur Liburua

MARTY,J.:“Qui lit un livre?”, 29-30 orr.

• Matematika

HEUDE,F.:“La cuisine: un prétexte aux activités mathématiques”, 31-32 orr.

• Informatika

HANSEL,N.:“Composition”, 39-40 orr.

• Soinketa

LEFEVRE,F.:“Action avec le petit matériel:équilibrer”, 41-42 orr.

• Jolasa

REMBAUT,D.M.:“Des jeux pour rire”, 53-54 orr.

#### L'ÉCOLE MATERNELLE 4, 1992ko abendua

• Haur liburua

MARTY-MINIERE,J.:“La chauve-souris et le livre “à l'envers””,37-38 orr.

FOLCH,T.,GARCIA,M.:“Le carnaval des fleurs”, 43-44 orr.

BELLEVENUE,Ch.:“Des jeux autour des livres”, 59-60 orr.

• Esperientzia arloa/Teknologia

MARTIN,M.:“Une machine à transformer”, 41-42 orr.

CHAMBRON-MA-CLET,F.:“Biologie animale: un élevage d'Artemias”,45-46 orr.

• Musika

GALLEN GAY-PERRET,B.:“Le bâton de pluie”,49-50 orr.

• Soinketa

LEFEVRE,F.:“Action avec l petit matériel:pousser-tirer

• Poesia

CHARASSE,C.:“Textes à dire et à entendre”, 57-58 orr.



## INFANCIA

### INFANCIA 13, 1992ko maiatza-ekaina



ETXE BARRIA,J.,MADARIAGA,I.:“El profesional de la educación infantil, una incongruencia de la LOGSE”, 4-7 orr.

ACEDO,C.:“¡Buenos días, en buena hora!”, 8-9 orr.

Haur Eskolan, garrantzitsuena jarrerren bizipena bera da, eta ez hainbeste egiten diren ekintzak.

MARTIN,L.:“La comunicación entre los niños en la escuela infantil”, 10-13 orr.

Haurren arteko harremanen garrantzia:afektibitatea,garapen soziala eta intelektuala,...

MEDRANO,G.:“El niño pequeño ante las nuevas tecnologías”,18-20 orr.

Esperientzia luze baten ondorioz, haur txikien hezkuntzan teknologia berriek abantaila hauek izan ditzakete:haurren arteko harremanak, garapen kognitiboa, bakoitzaren erritmoarekiko errespetua, autonomia,...

PILOTTI,F.:“La adopción internacional: tendencias, características y desafíos para los 90”, 22-24 orr.

SALVADOR,G.:“La alimentación en el primer año de vida”,31-37 orr.

### INFANCIA 14,1992ko uztaila-abuztua

AÑORGA,P.,ALZOLA,N.:“Los libros,abriendo y habitando espacios”,2-3 orr.

Haur bibliotekak animatzeko bidean,adibide bat.

OTANO,J.:“Aprendizaje significativo”,4-7 orr.



**FERRADAS,L.,VEIGA,F.:**“Preescolar na casa.Educación infantil,formación de padres y desarrollo comunitario rural en la Galicia del nuevo siglo”, 8-12 orr.

Galiziaren egoera (soziala, laborala,...) abiapuntutzat hartuz egiten ari den hezkuntz-esperientzia: nekazal giroan haur txikien hezkuntzak, bakoitzaren ingurunean oinarriturik, garapen bideak zabaldu behar ditu.

**BATZU:**“Comer en la escuela infantil.El placer de comer”,13-17 orr.

**COROMINA,P.,JUBERT,J.:**“Los primeros sonidos educan”,18-22 orr.

Bizitzaren lehenengo urtean, haurrak helduengandik jasotzen duen hizkuntzaren kantitatea eta kalitatea oso garrantzitsua da.

**FERNANDEZ,A.,TORO,M.:**“El molino de aceite”, 26-28 orr.  
Granadako Escoznar herrian egindako esperientzia:olibak eta olioaren prozesuaren behaketa.

**BAMBINI:** “La casa de los osos”,33-36 orr.  
Italiako Pistoian Udalak duen haur-espazio ireki bat:18 hilabetetik 3 urterarte haurrek haien espazioa aurki dezakete: jolasa,harremanak,liburuak,....

**CIRIGLIANO,P.:**“El niño en el agua”,37-40 orr.  
Haur txikiak igerian ikasten.

### INFANCIA 15, 1992ko iraila-urria

**TARDOS,A.:**“Autonomía y/o dependencia”, 4-9 orr.  
Artikuluaren egileak, Pikler doktorearen obran oinarrituz, haurren autonomia eta dependentiaren arteko orekari buruz

mintzatzen da eta era berean, oreka honek helduekiko harremanetan eduki dezakeen garrantziaz ere ematen du bere eritzia.

**MARTINEZ,A.:**“Construir una escuela infantil”, 10-13 orr.  
Haur eskola baten eraiketak hiru aspektu kontutan izan behar ditu: edifizioa bera, kanpoko espazioak eta altzari eta materialak.

**ODENA,P.:** “El juego de descubrir objetos en la escuela infantil”, 14-18 orr.

Artikuluak, Elinor Goldschmieden ildo metodologikoa jarraitzen du: objektu ezdidaktikoen erabilera,behaketa, sailkapena ,... Artikulu eskematikoa baina praktikoa.

**MEINI,N.,QUARESMINI,D.:**“Memoria y aprendizaje (I)”, 23-27 orr.

Lehenengo artikuluhonetan, memoriaren gaiaren arlo teorikoa azaltzen digute.

**HOMS,O.:**“La educación multicultural y multirracial en la educación infantil”, 30-32 orr.

**LASA,B.:** “Or gao rom ta kola tchavengo” (El pueblo gitano y la escuela infantil)”, 33-35 orr.

**MARTIN,A.:** “El niño con fiebre.Consejos a padres, educadores y cuidadores”, 36-39 orr.

Askotan, informazio faltagatik gurasoentzako kezka-iturri izaten da sukarra.

**FERRERO,C.:**“La educación para la salud en la educación infantil”.

LOGSEK, Osasunerako hezkuntza kurrikulum berriaren barruan zeharkako material legez ikusten du. Beharra begibistakoa da.





**INFÀNCIA**

**INFÀNCIA 66, 1992ko maiatza-ekaina**



**FIGUERAS, M.:** "La música i el nen petit", 9-10 orr.  
Haur Eskolako ekintza askotan musika egiten da...

**DREIER, A., VOIGT-BUCHHOLZ, I.:** "Cap nen no és com l'altre. Treball pedagògic amb grups d'edats barrejades", 11-16 orr.

Alemaniko haur eskola bateko esperientzia: adin desberdinetako haurrekin lanean.

**BINIES, P.:** "L'educador reflexiu-pràctic. Cap a un model professional", 18-19 orr.

Ikerketa-ekintza (investigación-acción) kontzeptuaren sortzailea izan den John Elliotti egindako elkarrizketa.

**PUJOL, M., ROCA, N.:** "Els nostres mars. Treballar per projectes a parvulari", 20-24 orr.

**SENDAK, M.:** "El Pinotxo "de veritat" és el de Collodi o és el de Walt Disney?", 26-28 orr.

Maurice Sendakek Disneyk egin duen Pinotxoren bertsioari buruz ikuspuntu berezia azaltzen digu.

**CELA, J.:** "La meva salut? Bé, gràcies.

Irakaslearen osasuna, gero eta gehiago, gai kezagarria bihurtzen ari da. Gizarteak, arlo honetan, erresponsabilitate handiak dauzka.

**INFÀNCIA 67, 1992ko uztaila-abuztua**

**OLLE, M. A.:** "Murmuris", 3-6 orr.

Haur eta helduen arteko ahozko komunikazioaren inguruko

hainbat aspektu lantzen ditu.

**JUBETE, M., MAJEM, T.:** "L'escuela dels petits, un espai d'educació social", 11-12 orr.

Haur Eskolaren funtzio soziala eta haurren sozializazioan duen rola.



**SZANTO-FEDER, A.:** "S'ha d'ensenyar motricitat als més petits?", 13-16 orr.

Artikuluaren egileak, Parisen lanean dagoen hungariarra, haurren mugimendua dela eta hezkuntzaren oinarriak azaltzen dizkigu, oinarritzko printzipioa autonomia delarik.

**BADIA, M.:** "La flauta màgica", 18-21 orr.

Mozarten "La flauta màgica" operaren inguruan 4 urteko haurrekin egin den proiektua.

**PASCUAL, M. A.:** "Les al·lèrgies i la primavera", 33-35 orr.

**TRIGO, J.:** "Com viuen els nens la separació dels seus pares", 36-40 orr.

Gurasoen banaketaren aurrean, haurren erantzuna norberaren ezaugarrien arabera emango da. Asko idatzi da honetaz. Esan daiteke hainbat familiatako egoera ikusita, irtenbiderik onena banaketa izan daitekeela.

**PERSPECTIVA ESCOLAR**

**PERSPECTIVA ESCOLAR 165, 1992ko maiatza**

**Monografikoa:** "Educació visual i plàstica".

**BOIX, E., CREUS, R.:** "L'àrea de plàstica i l'art", 2-6 orr.


**RIFA, F.:** "Educació visual i plàstica a l'escola", 7-10 orr.

**GRATACOS, R.:** "Proposta curricular per a la formació del mestre en l'àrea de didàctica de les arts plàstiques", 11-14 orr.

**BIBLIOTECA ROSA SEN-SAT:** "Bibliografia sobre educació estètica, visual i plàstica", 23-25 orr.

**BATLLE, R., MATAS, I.:** "Migdia a l'escola. Vers una pedagogia de la vida quotidiana", 27-31 orr.

Eskolan, eguerdikonea (bazkaria, atsedena, jolasa, ...) oso hezitzailea izan daiteke.



**BUSQUETS, D.:** "Sexisme i matemàtica". 17 orr.

**PEREZ, R. M.:** "El sexisme a l'educació física". 24 orr.

**GRUP DONA I CIENCIA:** "Noies i nois a les classes de ciències i tecnologia". 29 orr.

**LLEDO, E.:** "Sexisme i llengua a l'escola" 36 orr.

**BIBLIOTECA ROSA SEN-SAT:** "Bibliografia sobre sexisme" 46 orr.



**FERNANDEZ, J.:** "Reforma i programació d'activitats". 59 orr.  
Programazio unitateak, elementu biziak izango dira? kurrikuluma malgutu edo gehiago itxiko dute?.

## PERSPECTIVA ESCOLAR 166, 1992ko ekaina



Monografiko berezi honetan, Kataluniako Berriztapen Pedagogikorako Mugimenduen orain dela urte bat baino gehiago gainontzeko Hezkuntz Elkarteari proposatu zioten proiektua azaltzen da. 1996. urtean Berriztapen Pedagogikoari buruzko kongresu bat antolatzeko asmoz, ondorengo urte hauetarako galdera eta erreflexio batzuk ematen ditu lantzen joateko.

## COMUNICACION, LENGUAJE Y EDUCACION

### COMUNICACIÓN, LENGUAJE Y EDUCACIÓN, 15



Etikaren edo moralaren hezkuntza da 15. ale honen gai monografikoa. Bertan agertzen diren artikulak hiru gairen inguruan sailka ditzakegu:

Aldizkariaren zenbait artikuluk, erreformak etikaren hezkuntzari eman dion tratamendua dute aztergai: Etika, zeharkako gai bat izatearen aldeko eta aurkako eritziak, gaiaren tratamendu espezifikoa eta sistemazazioaren beharra, irakasleen rola baloreen transmisioan, eta abar.

Artikulu hauekin batera,

etikaren hezkuntzan erabil daitezkeen zenbait teknika ("rol jokuak", "Dilema etikoen eztabaida" ...) aztertzen dira. Garapen kognitiboa eta baloreen jabeakuntza da hirugarren artikuluko multzoaren gai nagusia.

## PERSPECTIVA ESCOLAR 167, 1992ko uztaila

**MONOGRAFIKOA:** "Educació no sexista i Reforma". Hezkidetzari arreta berezia egin behar zaio, eta orain askoz gehiago Erreforma prozesuan gaudelako. Hona hemen irakaskuntzaren arlo ezberdinetan lan egiten duten pertsona batzuren proposamenak:

**BATZU:** "Presentació", 2. orr.

**PORQUERES, B., SOPEÑA, A.:** "Sexisme i androcentrisme en les ciències socials", 9. orr.

GUIX

GUIX 175, 1992ko maiatza



SEGURA, C.: "Els serveis de la ciutat: la neteja", 27-30 orr.  
 Hasiera zikloan, hiria eta auzoa ezagutzen...

ANTUNEZ, S.: "La gestió escolar", 43-46 orr.

DOMENECH, J., VIÑAS, J.: "La gestió dels centres docents públics", 47-49 orr.

ANTUNEZ, S.: "Et reuneixes o treballes?", 53-56 orr.

BOIX, R.: "Més sobre la gestió escolar" 59-64 orr.  
 Bibliografia.

GUIX 176, 1992ko ekaina



Monografikoa: "La professió docent", 23-51 orr.  
 Irakasleen profesioa, prestakuntza espezifiko behar duen lan iraunkorra eta publikoa da. Zertan datza garapen profesionala? Zein eragin dauka eta zer motatako prestakuntza behar du?

IMBERNON, F.: "El desenvolupament professional del professorat. Una alternativa a l'alienació", 23-25 orr.

DOMENECH, J.: "Un model professional de l'educació per un model d'escola. Característiques i contradiccions", 27-32 orr.

ESCUADERO, J.M., MARTINEZ-ABASCAL, M.A., BORNAS, X.: "Malestar docent i de semparament après", 41-44 orr.

GONZALEZ, X., GALLEGRO, J.C.: "Les condicions de treball vistes pels docents", 45-51 orr.

GUIX 180, 1992ko urria

MARTINEZ, M., BUXARRAIS, M.R.: "Actituds, valors i normes a la Reforma", 4-8 orr.



CARRILLO, I., LOPEZ, S.: "Habilitats socials en la infància", 9-14 orr.

MARTIN, X.: "Autoconeixement", 15-18 orr.  
 Norberaren ezagutza etika-hezkuntzako kurrikulumean.

PAYA, M.: "La resolució de conflictes a l'educació primària", 19-24 orr.

PUIG, J.M., MARTIN, X.: "El diàleg com a valor i com a procediment", 25-30 orr.



**PUIG, J.M.:** "Bibliografía", 37-39 orr.  
Etika-hezkuntzari buruzko bibliografia.

**MASSAGUER, M.:** "Informe mixt d'auto-avaluació", 45-47 orr.

Haur txikienak bere eguneroko eginbeharren balorazioan era aktiboan parte hartzen hasi behar dira.

### INFANCIA Y SOCIEDAD

**INFANCIA Y SOCIEDAD 11, 1991ko iraila-urria**



**VARGAS, F.:** "Los accidentes infantiles y la salud pública", 60-73 orr.

Istripuak, haur-heriotzen arrazoi-zerrendan lehenengo postuan daude.

Artikulu honetan arazoa konpontzeko dauden traba nagusiak aztertzen dira.

### AULA de innovación educativa

**AULA 3, 1992ko ekaina**

#### Monografikoa:


"Prozeduren didaktika" 3. ale honen "gai monografikoa" n galdera orokorrek aztertzeaz gain (prozedurak zer diren, nola ebaluatu, nola sekuentziatu), irakaskuntzaren arlo konkretuetan (hizkuntza arloa, matematika arloa...) edukin multzo honen izaera, garapena eta lantzeko erak azaltzen dira.

#### Ikastetxea:

Elena MARTIN "Los instrumentos de planificación de la práctica docente"

"Bokazioa", "klaseanongi aritzea" eta "intuizioa" irakasleen

balore nagusizat hartzen dutenen aurka, irakaskuntza planifikatzeko beharra azpimarratzen da artikulu honetan. Ikaste prozesuan hartu beharreko erabakiak erreformaren markoan kokatzen dira eta erreformak planteatzen dituen mailei jarraituz (O.C.D ren diseinutik gelako programazioetara) erabakitzeko arloak eta maila bakoitzean erabakiak nori dagozkion azaltzen dira.



**Fernando HERNANDEZ:** "La cultura de la reflexión y la planificación del curriculum".

Proiektukurrikularrak prestatzerakoan irakasleen hausnarketa kritikoaren beharra azpimarratzen da, hala irakaslea berak egiten dituen ekintzei begira nola O.C.D.k planteatzen dituen proposamen orokorrei begira.

**Antoni ZABALA:** "Elaboración de los PCC. ¿Empezar por lo que se hace o partir de las grandes decisiones?"

Ikastetxeko proiektu kurrikularra prestatzeko modelo deduktiboek (printzipio orokorretatik praktikara) eta induktiboek (praktikatik printzipio orokorretara) dituzten abantailak eta desabantailak aztertzen dira eta modelo biek eduki ditzaketan hutsuneak gainditzeko tresna praktikoak proposatzen ditu autoreak.

#### Punto de vista

**Cesar COLL:** "Constructivismo e intervención educativa (y 2) ¿Cómo enseñar lo que ha de construirse?"

Ikuspegi konstruktibista kurrikulumetan nola konkretatu daitezkeen azaltzen du eta konprezioak ekar ditzakeen ondorioen azterketarekin batera, psikologia eta irakaskuntzaren arteko erlazioak aztertzen ditu autoreak.

**AULA 4-5, 1992ko uztaila-abuztua**

#### Gai monografikoa:

Natur Zientzien didaktikari buruzko ale honetako gai monografikoan, Haur-Hezkuntzan baliogarriak izan daitezkeen proposamen konkretuak aurki ditzakegu jarraian azaltzen den artikuluan:

**Maribel ALMAGRO:** "Tenemos caracoles"

#### Ikastetxea:

**Roberto REY:** "La toma de decisiones. ¿Qué, quién, cómo y cuándo decidir?"



Artikuluaren izenburuan azalzen diren galderen inguruan, gure eskola antolaketak planteatzen dituen arazoak, koherentzia falta eta hutsuneak aztertzen dira.

**Julio DELGADO:** “Diferenciación de roles en las distintas instancias directivas del centro escolar”.

Ikastetxe publikoen antolaketak dituen hutsuneak eta zuzentzeko bideak aztertzen dira.

**Serafín ANTUNEZ:** “Cómo expresar la estructura organizativa en el PEC”.

Ikastetxearen egituraren definitu beharreko elementuak eta beraien arteko erlazioak definitzeko baliogarriak izan daitezkeen hainbat proposamen agertzen dira.

## AULA 6, 1992ko iraila

**Gai monografikoa :**  
“ La resolución de problemas en matemáticas”.

**Ikastetxea:**  
**Miguel A. SANTOS GUERRA :** “Evaluar los centros escolares : exigencia y necesidad”.

Ikastetxea ebaluatzeko kanpoko eta barneko ebaluazioa batera egitea defendatzen du eta errendimenduen indikadoreetan oinarritzeko ebaluazioaren ordean, ebaluazio kuantitatiboa egitea proposatzen du autoreak, honen berezitasun nagusiak azaltzen dituelarik.

**Pilar FERREIROS, Francisc RIU:** “Un diseño para la evaluación del proyecto curricular”.

Proiektu kurrikularrean ebaluazioak eduki beharko lituzkeen berezitasunak (Teoria eta praktika biltzea, elkarlanean egitea...) eta bere izaera dinamikoa azpimarratzen dituzte autoreak. Halaber, ebaluazioak berarekin, berez, eragin beharko lukeen hobekuntza eta eguneratze konpromezua azpimarratzen du.

**Ikusmira:**




**Gerardo ECHEITA:** “La integración escolar a debate”.

Artikulu honetan garatzen den gogoetak, oraingo egoera hartzen du abiapuntutzat eta ikasle guztientzat baliogarria izan daitekeen helburu bat aurkezten du konponbidetzat: Ikasleen dibertsitateari erantzutea.

## AULA 7, 1992ko urria

Ale honetako gai monografikoa, argi azaltzen da jokoak irakaskuntzan duen balio anitza.

Jolasen bidez kontzeptuak, prozedurak, jarrerak eta abar gara daitezke. Arlo berezien garapenean ere baliogarriak dira jolasak: matematika lantzeko, hizkuntza...



## INFANCIA Y APRENDIZAJE

### INFANCIA Y APRENDIZAJE, 58

Alfabetizazioa da ale honetan aztertzen den gai monografikoa.

Irakurketa-idazketak notazio sistema bezala inplikatzaren dituen arau konbentzionalen gain, komunikazio tresna bezala sortu dituen legeak azpimarratzen dituzte ale honetako artikuluak.

70. hamarkadan irakurketa eta idazketaren ikaste prozesuari buruzko perspektiba berri bat garatzen da. Perspektiba honek ikasleen aktibotasuna azpimarratzen du, ondorioz eskolatik kanpo eragina eduki ditzaketan faktoreei garrantzia handia



ematen zaie. Aldizkari honetako zenbait artikulua perspektiba honetan koka ditzakegu.

Idazleen iritziak kontutan edukitzen baditugu, testuak ulertzea eta ekoiztea ez da bat-batean egiten den zer bait. Konplexotasun honetaz jabetu diren zenbait autorek perspektiba berri bat zabaldu dute: idazle trebeak jarraitzen duten prozesua aztertzea eta hastapenetan dauden idazleak jarraitzen duten prozesuarekin konparatzea.

Ardura bera ikus dezakegu, orobat, haurrek eta alfabetatu gabeko helduek idazten dituzten testuen berezitasunak aztertzen duten artikuluetan.

**FERREIRO Emilia, VERNON, Sofia**

“La distinción palabra/nombre en niños de 4 y 5 años”.

**GOODMAN, Yetta**

“Las raíces de la alfabetización”.

**SCARDAMALIA Marlene, BEREITER Carl**

“Dos modelos explicativos de los procesos de composición escrita”.

**CAMPS, Ana**

“Algunas observaciones sobre la capacidad de revisión de los adolescentes”.

**TOLSCHINSKY Liliana**

“Calidad narrativa y contexto escolar”.

**TEBEROSKY Ana**

“Reescribiendo textos: producción de adultas poco escolarizadas”.

**PONTECORVO Clotilde, ORSOLINI Margherita**

“Analizando los discursos de las prácticas alfabetizadoras desde la perspectiva de la teoría de la actividad”.

**SALOMON Gavriel**

“Las diversas influencias de la tecnología en el desarrollo de la mente”.

**SIGNOS**

Gijoneko C.E.P.-ek argitaratzen duen aldizkari hau 3 urte daramatza kalean.

Orain arte argitaratutako aleen editorialetatik jaso ditugu aldizkariaren sortzaileen ustez eskolak eta irakasleek bete beharko luketen papera, halaber, SIGNOS aldizkariak bete beharko lukeena:

- Hezkuntz sistema, sistema soziala indartzeko eta mantentzeko tresna bihur ez dadin, hezkuntz-ekintzen oinarrian dauden teoriak ezagutaraztea.
- “Errutina pedagogikoetan” jausi ez gaitzen, praktikari buruzko erreflexioa bultzatzea.
- Egoera desberdinetan gertatzen den problematika azaltzeko eta aztertzeko lagungarriak diren kontzeptuak erabiltzea.

Aipamen labur honetan, orain arte argitaratutako aleetan agertu diren artikulua guztien berri ez da emango, bai oster.

1992ko Ekainean argitaratutako 5/6 alean “Infancia y escuela” gai monografikoaren barruan argitaratutako artikulua:

**SIGNOS, 5-6**

**ANTUÑA, J.:** “Pasado y presente de la Educación infantil”

**GIL, P., SANCHEZ, N.:** “Concepciones sobre el desarrollo y el aprendizaje”.

**VILA, I.:** “El desarrollo del lenguaje”.

**ARNAIZ, V.:** “La seguridad afectiva y el interés por el aprendizaje: El papel del profesor”

**AMOROS, C., MIRA, M.**

**R.:** “Comunicación y representación en la educación infantil: El lenguaje oral matemático”.

**RODRIGUEZ, C.:** “Comunicación y representación en educación infantil: El lenguaje visual y plástico”.

**TRUEBA, B.:** “Proyectar el ambiente en la escuela infantil: los talleres integrales como propuesta de organización”.

**MOLINA I SIMO L.:** “La observación, un eslabón en la acción educativa”.

**ANGEL, C., BIGAS, M., CARRIO, R., MOLL, B.:** “La interacción adulto-niño en la escuela infantil”.





# H AUR-ESKOLAK ETA HEZIKETA

*Gipuzkoako Haur-eskolen koordinakundea*

Haur-Eskolek 0-tik 3 urtera bitarteko haurrak hezitzen dituzte. Haur horiek oso ttikiak dira eta bati baino gehiagori bururatuko zaio zer egiten duten eskola batean sartuta, edota zer egin dezakeen eskola batek hain haur ttikiak hezitzeko. Gurasoak ez ote dira nahiko?

Haur-eskolen ikuspegiak aldaketa haundia eman du. Gurasoen zerbitzurako jaio bazi-  
ren ere, gaurregungo protagonis-  
moa hurrarena dela esan behar  
dugu, gauza guztien gainetik haur  
horien heziketa-gune bilakatzen  
bait dira haur-eskolak, familia  
bera den bezala.

Haur-eskolek ez dute familia ordezkutzen. Haurra bi esparruotan biziko da eta bietatik jasotako esperientzien bitartez garatuko da.

Haur-eskolak esperientzia modu ezberdinak egiteko aukera eskainiko dizkie haurrei eta baita

sozialki erlazionatzeko era berriak ere. Bestalde, haur-eskolak, euskalduna izanik, erdaldunei euskaratzeko aukera ezin hobea eskaintzen die. Helburua, beraz, ez da familia ordezkatzea, familiarekin batera lan egin eta haurraren heziketa aberastea

baizik. Horregatik mantentzen da eguneroko harreman estua gurasoekin, horregatik bilerak eta elkarrizketak, azken finean, elkarrekin lan eginez, haurraren eguneroko dinamikari eduki pedagogikoa txertatzea bait da gure lana.



*Hernaniko Mailus Haur-Eskola*

Haur-eskolek kontutan hartzen dute haur ttiki horien erabateko dependentzia helduarenganako. Kontutan hartzen dute, halaber, haur horien bakarkako atentzio beharra ere. Horregatik, taldeak oso ttikiak izaten dira, 5-etik 12ra bitarteko kopurukoak hiru urteetan zehar.

Haur-eskolek kontutan hartzen dute, bestalde, adin hauetako haurren behar guztiak mundu afektiboaren inguruan

murgiltzen direla eta, batez ere, afektiboki atxekitutako irudiak (guraso/hezitzaile) emango dien segurtasunari esker abiatuko direla munduarekin harremanetan jartzera. Hori dela eta, inportantea da figura hori irakasle berarekin mantentzea.

Eta kontutan hartzen dute, orobat, haur ttiki horiek dena osotasunean bizi dutela, errealitatea puskatu ezina zaiela, banatuta ulertu ezina zaiela. Hortik

dator haurren bizipen guztiei (maitasunari, jolasari, elikadurari, lotan jartzeari, garbitzeari, laguntzeari... HEZTEAri) irakasle berberak erantzutea.

Haur-eskolek kontutan hartzen dute adin honetako heziketak duen garrantzi ikaragarria. Horregatik taiuz planifikatzen dute euren lana, sakon prestatu irakasleak eta ikertu eguneroko errealitate berria.

Haur-eskolek jakin badakite mundu hau askorentzat ezezaguna dela, Administrazioak ez diela jaramonik egiten, Hezkuntz Erreformatan kontuan hartzen dituen arren, diru publiko gutxi erabiltzen dela, haur asko eta asko gelditzen direla haur-eskoletara joan ezinik oso garestiak direla eta, premia gehienak bertako langile eta gurasoen artean konpontzen direla laguntza publikorik gabe. Guzti hori badakite, baina proiektu honetan biziki sinisten dutelako jarraitzen dute elkartzeko, Administrazioan beharrak planteatu eta irtenbideak exigitzen, dohaintasuna aldarrikatzen, haur-eskola gehiago aldarrikatzen, lan-proiektua osotasunean hobetzen. Noizbait, guztion mesederako, gauza polit bat lortuko duten itzaropenean.



*Hernaniko Mailus Haur-Eskola*

**B I B L I O G R A F I A :**

Aurkezten dugun bibliografia, nahiz eta oso zabala ez izan, gida bat izan nahi du: Haur-Eskolako alderdiren bat sakontzeko laguntza edo Haur Eskolari buruzko ikuspegi orokorra izan ahal izateko tresna bat.

**GARAIGORDOBIL, M. (1990):** "Juego y desarrollo Infantil". Madrid: Seco Olea. Liburua bi ataletan banatua dago. Lehenengo partean jokuaren fundamentazio sakona egiten du. Psikologia-ikusuntu ezberdinen arabera, 8 urte bitarteko garapenaren ezaugarriak planteatzen ditu eta arlo bakoitzarako jokua dituen apartazio baliotsuak txertatzen joaten da egilea. Bigarren partean, ongi estrukturaturako jokuen fitxero bat eskaintzen digu, gelako lan metodologiaren oinarri modura hartu daitekeena.

Alderdi praktikoa 3 urtetik gorakoentzat planteatuta dago gehien bat, baina hala eta guztiz lehenengo ziklorako apartazio baliotsuak egiten dira liburu honetan, haurren garapena ulertu eta lana diseinatzeko garaian lagungarri izango ditugunak.

**GORKILLE BRIGGS, D. (1979):** "El niño feliz, su clave psicológica". Barcelona: Gedisa.

Liburuaren mamia autoestimaren garrantzia azpimarratzean datza. Haurrengan autoestima nola doan ezartzen erakustez gain, autoestimak garapen zoriotsurako duen eragina ikustarazten digu. Liburu honen irakurketak haurreko errespetua eta maitasuna sortarazten du.

**EUSKOJAURLARITZA. (1992):** "Haur hezkuntzako oinarrizko curriculum diseinua". Gasteiz: E.J.ren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Hezkuntz erreformaren ildotik sortutako lan markoa. Eskolako nahiz gelako curriculum egiterakoan, hau da, noiz, nola eta zer irakatsi eta ebaluatu planteatzerakoan, alegia, kontutan hartu beharreko oinarrizko eduki, norabide pedagogiko eta beste hainbat abiapuntu teoriko eskaintzen dituen ahaztu ezineko liburua.

**LAPIERRE, A. eta A. (1982):** "El adulto frente al niño de 0-3 años". Barcelona: Científico Médica.

Psikomotrizitatearen bizitzak nortasunaren eraketan duen eragina erakusten digute bi egile hauek. Liburu honetan haur-eskola batetan bizitako esperientzia bat ematen digute argitara, bertan eginiko ariketek lortutako emaitzak aztertzen dituztelarik.

**SAUSSOIS, N. (1986):** "Actividades en talleres para guarderías y preescolar". Madrid: Cincel.

Liburu honek, antolaketa eredu bat eskaintzen du. Eredu honen bidez iharduera libre ahalbideratzen da eta joku sinbolikoaren esperientziak bultzatzen dira.

Autoreek esaten dutenez, txokoen bidez antolatutako klaseak aukera eman behar die haurrei denbora egokiro bete dezaten; lan pertsonalean edo/eta talde lanean sortzen diren beharrik kontutan izan behar direla dio; eta, bukatzeko, beren buruen eta inguruaren ezagupenerako haurren arlo afektiboari erantzun behar diola gogorazten du.

**ZABALZA, M.A. (1987):** "Didáctica de la educación infantil". Madrid: Narcea.

**ZABALZA, M.A. (1987):** "Areas, métodos y evaluación de la educación infantil". Madrid: Narcea.

Bi liburu hauen bitartez haur hezkuntza planteatu daitekeen sakontasun eta konplexotasun osoz egitea lortzen du egileak. Lehenengo liburuan gehiago zentratzen da hezkuntz ekintzari soportu eta marko teorikoa lantzen; bigarrenean, aldiz, lan eremuak aztertzen ditu, aurrekoan baino zehaztasun gehiagorekin, beti ere erreferentzia teorikoa ahaztu gabe eta osotasun batean integratuz gainera. Erreferentzia eta autore aldetik izugarri aberatsa, aberatsa den bezala haur hezkuntza egiteko metodologia anitzen aipamena.

**BERTOLINI, P.; FRABBONI, F. (1990):** "Nuevas orientaciones para el curriculum de la educación infantil (3-6 años)". Barcelona: Paidós.

**BINIES, P. (1992-09):** "El niño de 0 a 3 años". Infancia, 15.

**CARRETERO, M. y otros (1989):** "Pedagogía de la escuela infantil". Madrid: Santillana/Aula XXI.

**CODINA, M.T. (1991-09):** "Protagonista, el grupo de 3 años". Infancia, 9.

**DIAZ, M.C. y otros (1991):** "Proyecto Curricular de Centro para la Educación Infantil. Un modelo activo". Madrid: Escuela Española.

**ETXEBARRIA, J., MADARIAGA, I. (1992-03):** "El profesional de la educación infantil". Infancia, 13.

**GOLDSCHMIED, E. (1981):** "El niño en la guardería. Guía para educadores y padres". Barcelona: Reforma de la Escuela.

**IRWIN, M.; BUSHNELL, M. (1984):** "La observación del niño. Estrategias para su estudio". Madrid: Narcea.

**JIMENEZ, N.; MOLINA, L. (1989):** "La escuela infantil. Lugar de acción y de cooperación". Barcelona: Laia.

**JUBETE, M.; MAJEN, T. (1992-07):** "L'escola dels petits, un espai d'educació social.

(1992-09)"Escola Infantil i Reforma / Núm. 144, octubre (1989)". Guix, 179.

**LAGUIA, M.J.; VIDAL, C. (1987):** "Rincones de actividad en la escuela infantil (0-6)". Barcelona: Graó.

**LEGGIO, M.L., MONTOLI, R. (1990-07):** "La adaptación del niño en la escuela infantil sicosomática". Infancia, 2.

**MARTIN, L.; ERRAZURIZ, P. (1989):** "La escuela infantil. Un lugar de encuentro". Madrid: Síntesis.

**MOLINA, L. (1991-12):** "Educación Infantil". Cuadernos de Pedagogía, 198.

**MOLL, B. y otros (1988):** "La escuela infantil de 0 a 6 años". Madrid: Anaya.

**MUSATTI, T. (1991-09):** "¿Cómo ven los niños la escuela infantil?". Infancia, 9.

**PALACIOS, J.; MARCHESI, A.; COLL, C. (1990):** "Desarrollo psicológico y educación. I. Psicología Evolutiva". Madrid: Alianza Psicología.

**PUJOL, M.; ROCA, N. (1991):** "Treballar per projectes a parvulari". Vic: Eumo.

**SAUSSOIS, N. (1984):** "Actividades en talleres para guardería y preescolar". Madrid: Cincel.

**SAUSSOIS, N. y otros (1991):** "Los niños de 2 a 4 años en la escuela infantil". Madrid: Narcea.

**TAVERNIER, R. (1987):** "La escuela antes de los 6 años". Barcelona: Martínez Roca.

**WILLIS, A. y otros (1990):** "Orientaciones para la educación infantil de 0 a 2 años". Madrid: Morata/M.E.C.

# H AUR HEZKUNTZA EUSKAL AUTONOMI ELKARTEAN

M.J. Gurpegi, P. Hernandez, M.C. Herráez eta C. Elorza. (EAEko Haur Hezkuntzako Aholkulariak).

## 0-6 urtekoen eskolatzea.

Euskal Autonomi Elkarte osoan - eta batik bat Gipuzkoan- guraso gehienek duten joera, bai eskola

publikoetan zein ikastoletan, bi urteko haurrak eskolatzeko. Horren zergatiak bilatzerakoan, jaiotzeen murrizketaz gainera, ikas-sareen arteko lehia ere kontuan hartu behar da, lehia horren eraginez gero eta lehenago hartzen bait dira umeak. Ikastetxeetako langileek besterik ezean onartu behar duten egoeratzat hartzen dute eta hori ez dela euren zeregina eta horretarako ez daudela egokiro prestatuta antzematen dute.


	0-3 urte	3 urte	4-5 urte
Araba	20,7	100	100
Bizkaia	21,6	100	100
Gipuzkoa	22,0	100	100
E.A.E.	21,7	100	100
Territ. MEC	---	30,4	100

Lehen zikloko haur eskolatuen ehunekoa (%21,7) oso urria da, hiru urtekoen aldean edo 3-6 urtekoen etapako ehunekoen (%100) aldean. Alde honek argi eta garbi erakusten du ziklo honetikiko dagoen utzikeria.

Jaiotza kopuruaren murrizketak eta hiru urtekoen eskolatzak, jaitsi egin du, azken urte hauetan, 0-3 zikloan "eskolatu-gaiak" izandaitekezkeen umeen kopurua.

Bestalde, aipagarria da

## 0-3 zikloko ikastetxeen titularitatea EAEn, ehunekotan.







Autonomi Elkarteetan, lehen ziklo honetako hamar ikastetxe bakoitzeko, zazpik titularitate pribatua dute, bik publikoa eta hamarretik bat kooperatiba da.

Ikastetxe publikoek egiten duten eskaintza hori ez dugu dohainekoa dela pentsatu behar, izan ere, haietako zenbaitetan gurasoek ordaintzen dituzten kuotak beste sareetako beste-koak dira. Erakunde publikoek behin eta berriro hausnartzen dute ematen duten laguntza horrek merezi ote duen, oso garestia bait da tegi hauen mantenua. Hargatik, sarri askotan, sasi-udal patronatoak sortzen dira zuzeneko erantzunkizunak saihesteko, batez ere, langilegoari dago-kionez. Hala eginez, egoera politikoak agintzen duenean, zerbitzu hori eteteko aukera daukate.


Erakunde publikoen konpromezu ezaren arazoari irtenbide bat emateko, uste dugu egokia dela herri administrazio guztien artean (udaletxe, diputazio eta gobernu autonomikoen artean) hitzarmenak egitea, horrela, legezko abiapuntu bat egondadin, kalitatezko eskolatze bat eskaintzeko gauza diren lehen zikloko ikastetxe guztientzat, publikotasun eta dohaintasun osorako bidean.

**Haurtzaindegiaren kokapena EAEn. Ehunekotan.**

Ikusten den bezala, 0-3 zikloko haurtzaindegi edo haur-eskola gehien-gehientsuenak egokiak ez diren lekuetan kokatu dira. 3-6 zikloan, ostera, egoera uniformeagoa da, tegi gehienak OHOkoko ikastetxeetan bait daude,


adin horretarako egokitzapenik ez duten arren. Ziklo horretarako berariaz eraiki diren haur-eskolek egokitasun handiagoa dute, baina hauetan ere gabezia asko ageri da: ur konexiorik eza, esfintereak kontrolatzen ez dituzten umeentzako lekuen falta, erraz erabiltzeko moduko komun egokien falta, psikomotrizitate gelarik eza, denerako gela berezi baten falta, eta abar.

Eraikuntzaz edo barruko eremuaz gainera, haurtzaindegi edo haur-eskola orok kanpoko eremu propio bat eduki behar du. Halaxe dio ekainaren 14ko 1004/1991 Gutxienezko Baldintzen Errege Dekretuak. Dekretu honek, unibertsitateaz aparte, irakaskuntza orokorra eskaintzen duten ikastetxeek bete behar dituzten gutxienezko betekizunak ezartzen ditu. Eta ziklo horretako kanpoko espazio minimoa 75 m.koa izan behar dela dio. Esate baterako, gutxienezko baldintza hori



Autonomi Elkartearen indarrean jarriko balitz, larri ibiliko lirateke hiru haurtzaindegi bakoitzetik bat (gehienbat pribatuak).

## 0-3 zikoloko ordutegiak EAEn, ehunekotan.



Hiru ordutegi mota daude, gutxi gorabehera ohizkoenak direnak, haurtzaindegi eta haur-eskoletan:

1) Ama langilearen "beharrizan"etara egokitzen dena, guk "luzatua" deitu duguna. Beranduen ere goizeko zortzietan irekitzen dituzte ateak eta arratsaldeko seietatik zortzietara itxi.


2) Ikastetxeen ordutegieta-  
ra egokitzen direnak, gurasoek beste seme-alabekin batera

eraman ahal izateko haurra eskolara. Goizeko zortzi t'erdietatik bederatzietara irekitzen dituzte ateak eta bost t'erdietatik seietara itxi.

3) Eskoletako ohizko ordutegia dutenak. Bederatzietatik aurrera irekitzen dute eta bostetatik bost t'erdietara itxi.

## Hezitzaile taldearen titulazioa EAEn, ehunekotan.

Lehen ziklo honetan, langilegoaren bi herenetik gora, lehen aipatu dugun Dekretuan ezarritako minimoetatik kanpo geratzen da, asko jota puerikulturaren inguruko prestakuntza izaten bait dute (askok Osasun Sailak ematen duen laguntzaile titulua, epe motzean atera daitekeena, besterik ez daukate). Etapa honetarako berariazkoa den Lanbide Heziketako titulua oso langile gutxik daukate, heziketa hori oso ikastetxe gutxitan ematen bait dute. Eta, azkenik, bigarren zikloari dagokionez, sare pribatuan, oraindik ere, titulazio egokirik ez duen langilegoa dago.



*Datu hauek M.J. Gurpegik, E. Gamak eta R. Ajangizek, 1992ko martxoan Euskadiko Eskola Kontseiluarentzat eginiko "EAEko Haur Hezkuntzari buruzko Txosten"etik atera dira.*

*Bilbo, 1992ko abenduan.*

# HEZKUNTZ ERREFORMAREN APLIKAZIOA: AMETS BATEN AMILTZEA

Mikel Mendizabal. (Zarautzko Udal Haur-Eskola).

Amets bat izan da, hainbat urtetan, 0-3 urteko haurren heziketan gabiltzanontzat gure lanaren errekonozimendu ofiziala izatea, haurrak ongi zaintzen ditugun kolektibotzat hartzeaz gainera, guk aspaldidanik aldarrikatzen dugun bezala, egiten dugun lanaren heziketa izaerari onespena ematea.

Hainbat borroka izan ditugu urteetan zehar; amets ederrak ere izan genituen erreformaren lehen zirriborroak edo haien proiektuak ezagutu genituenean. Eta halako batean, iritsi zaigu legea: LOGSE. Hitz magikoa dirudi; batzuentzat, dena edo ia dena konpon deza keena, baina ametsetik atera gaituena ere bai, lur gorria dugula oinpean gogoratuz.

Dena den, hementxe dugu. Behintzat badu zerbait positiboa, guretzat, eta gurekin eguneroko gorabeherak bizi dituzten haurrentzat: 0-6 urte bitarteko etaparen heziketa izaeraren errekonozimendua. Horixe dugu LOGSEri eskertu behar diogun bakarra, gainerako guztia behe-

rapenekin iritsi zaigu. Etapa bi ziklotan zatitu digute, horrek dakarren tratamendu desberdina dela eta, gainerako hezkuntz komunitatetik gure zikloa aldendu egiten delarik. Horren ondorioz honako hauek pairatu behar ditugu:

- Gure sektorea erregulatzeko indefinizioa.
- Hezkuntza sailak 0-3 zikloa ez bereganatzea.
- Bi profesional mota ezartzea.
- ODKean ere tratamendu desberdin hori isladatzea, e.a.

Ez naiz hasiko orain hemen guzti horren ondorioen azterketa sakon bat egiten. Legea hor dugu. Denok dakigu arrazoi ekonomikoetan, eta ez psikopedagogikoetan, oinarriturik egin dela. Baina, kontutan izanik, Euskal Autonomi Elkarteak kompetentzi osoa duela heziketa mailan eta, horren ondorioz, lege hori Autonomi Elkarte honetan ezartzerakoan, hemengo errealitateari egoki dakiokela, itxaropentsu agertzen ginen nahiz

eta beldur izan gure lan guztia alferrik galduko ote zen.

## ZER DIO EUSKO JAURLARITZAK?

Erreforma aplikatzen hasiteko garaia iritsi zaigu eta E.J. hasia da horretan. Baina, gure ustez, zerbait ahaztu zaio, hau da, 0 urtetik hasi beharrean (0-6 urte bait da haur heziketa) 3 urtetik aurrera hasi da.

Denok dakigu gure Autonomi Elkarte haurrak, 3 urtetik aurrera, eskolaturik daudela jadanik eta hezkuntzako enborretik kanpo gelditzen den adar bakarra 0-3 koa dela. Noski, Jaurlaritzak nahiko lan izango du eta nahiko diru gastatu beharko du erreforma 3 urtetik aurrera aplikatzerakoan; zertarako hartu lan gehiago eta gastatu diru gehiago hain minoritarioa den sektorearekin?. Azken finean, legeak agintzen du, eta legeak dio, 0-6 hezkuntz etapa bat dela,

baina bi zikloetan banatzean, lehenengoan legearen aplikazioa erabat indefiniturik gelditzen da, Administrazioari ihesbide ugari eskainiz (Art. 7.3). Norbaitek esaten omen zuen zezenari ez zaiola adarretatik heldu behar, kapotea erakutsi eta pasatzen utzi baizik; ongi ikasia dute hori.

Nork eman beharko luke lehen pausua? Hezkuntz administrazioak, noski. Administrazioak ontzat ematen badu LOGSEk 0-6 etapan egiten duen ziklo zatiketa, legeak agintzen duena bete behar du hezkuntz planifikazioa egiterakoan, baina ez dirudi horrelako asmorik duenik. Ontzat ematen du zikloen zatiketa hori (ez dut hasi nahi orain beste zatiketa posible batzuen desegokitasuna edo bideragarritasun eza aztertzen) baina lehen zikloari dagokion zatian ez du ezer egiten erreforma aplikatzeko. Are gehiago, ez du inongo neurririk hartzen LOGSEren aplikazioa segurtatzeko, hau da, 0-6 etapan egiten den ziklo banaketa errespetatzeko.

Denok dakigu azken urteetan, jaiotze murrizketa dela eta, ikastetxe asko matrikulazio gerra batean direla, nork haur gehiago "berenganatu". Honen ondorioz, ikastetxeetan 2 urteko haurren gelak zabaltzen ari dira.

Gela horiek ilegalak dira, ez bait datoz bat Haur Hezkuntzari buruz LOGSEk dioenarekin, hau da, etapa bi ziklotan banatzen dela 0-3/3-6 eta ikastetxe bakoitzak eman dezakeela lehen zikloa, bigarrena edo biak, baina INOIZ

ERE EZINGO DUELA banaketa hori hautsi.

Jaurlaritzak kontu honetan neurririk hartzen ez badu, lehenengo-lehenengo berak bete beharko lukeen legea hausten lagutzen du.

Eta ez dugu ahaztu behar, halaber, politika honen ondorio zuzen eta larria zein den:

1.- 0-6 urte bitarteko etaparen zentzu pedagogikoa pikutara bidaltzea, arrazoi ekonomikoak psikopedagogikoei aurrerajarri, lehen LOGSEn egin zen akats berdina errepikatuz, eta

2.- Hainbat urtetan zehar 0-3 urte bitarteko haurren heziketaz arduratu den sektorearen itomena, ez bait da bideragarria, ez ekonomikoki ez pedagogikoki, 0-2 urteko haurrekin bakarrik ihardutea.

### ETA ZER DIOTE SINDIKATUEK?

Badakigu Administrazioak duela azken hitza, baina sindikatuek ere, agente sozial diren aldetik, badute indarra eta presioa egiteko ahalmena.

Haur-Eskoletan lan egiten dugunok kolektibo txiki bat gara. Irakaslego guztia kontuan hartuz gero: Administrazioaren eta legearen artean gertatzen den kontraesan berbera agertzen da, orobat, sindikatuen eta heuren defenda dezaketen proiektu

pedagogikoaren artean. Bai, teorikoki sindikatuek onar dezakete eta esango dute 0-3 urte bitarteko garai hori oso garrantzitsua dela haurrentzat, bere nortasunaren garapenerako lehen 6 urteak erabakiorrak direla, kalitatezko heziketa bat behar duela adin horretan, ez litzatekeela 0-6 etapa zatitu behar edo zatiketa hori ematekotan 0-3/3-6 nahikoa dela. Bainan arrazoi guzti horiek bazter batean gelditzen dira eguneroko errealitatean. Eskoletan haurrak behar direnez eta hori lortzeko era bat 2 urteko haurren gelak zabaltzea denez, bakoitzak bere lanpostua segurtatzera jotzen du, arrazoi pedagogikoak ahaztuz edo alde batera utziz, behintzat.

Nire ustez, LOGSE bera nahiko debalaturik iritsi zaigu, orain eta hemen, behar bezalako tratamendua ematen ez zaiolako eta 0-3 urte bitarteko haurrentzako zuen puntu positibo bakarra (adin hori hezkuntz etapa kontsideratzea) ere balio praktikorik gabe uzten duelako.

Zergatik ez eraiki Euskal Eskola publiko bat, haurrak jaiotzetik onartuko dituen?

Edo kalitatezko eskola bat, haurrari bere gaitasun guztiak garatzen lagunduko diona?

Zergatik baztertu hainbat urtetan zehar, haur horien heziketa egokia lortzearren, sakrifikatu den sektore oso bat?

*ORAINTXE DA guzti hau zuzendu eta bideratzeko momentu egokia!!!*



# MINTZAIRAREN GARAPENA

*Ignasi Vila.*


Gutxitan pentsatzen dugu hizkuntzaz jabetzeko prozesuan. Gizakiaren hain berezko gauzatzat jotzen dugu ezen normala dela iruditzen bait zaigu, 2 urte inguru dituenean, haurra mintzatzen hastea eta 6-8 urte dituenean, dagoeneko, barra-barra hitzegia. Hala ere, hizkuntzaren garapenari buruzko hausnarketari ekiten badiogu, azalpen gaitz samarra duen fenomeno baten aurrean gaudela ohartuko gara. Esate baterako, zergatik esaten dute haurrek gazteleraz, txikiagotan luzaroan “roto” esan ondoren, “rompido”? Nola liteke haurrek, behin hainbat termino dakizkitenean, lehenago helduen ahotan sekula entzun ez dituzten adierazpenak sortzeko, termino horiek elkartzea?

Lehen begiratu batean, arazo erraza ematen du. Zera erantzun daiteke, mintzaira, oinarri-oinarrian, arauen bidez eratzen dela eta, hortaz, haur batek hitzegiten ikasten duenean, funtsean ikasten duena arau sistema bat dela. Jakina, honek zera

esan nahi du, zerbait esaten duenean, baduela sistemaren gutxienezko ezagupen bat, haren osagaiak era berezi batean elkartzeko aukera ematen diona. Baina, hain zuzen ere, hortxik agertzen zaizkigu arazoak: zeren ezagupena? joskeraren, semantikaren edo hizkuntza darabilgunean lortzen ditugun helburuen ezagupena da?

Gako horiei erantzun nahian, ikerketa ugari egin dira azken 25 urteotan. Hala eta guztiz ere, oraindik ulertu ezin ditugun alderdi ilun asko daude. Horregatik, jakituria zientifikoak herri-

usteak ere bereganatzen ditu eta herriak hartzen dituen azalpen berberetara jotzen du, erantzunik ez daukanean. Horren ondorioz, imitazioan eta innatismoan oinarrituriko azalpenek luzaroan txipristindu dituzte eztabaida psikolinguistikoak. Beharbada imitazioak eta innatismoak eragiten dute, nola edo hala, mintzairaren garapenean. Baina bietako batak ere ez du balio mintzairaren agerpenak daukan magia azaltzeko. Giza izaera soziala da. Emakume eta gizonak elkarrekin bizi gara, normaz, balorez, ezagupenez, prozedurez



eta abarrez arauturiko elkartean. Eta hala, ekinahalean aritzen gara elkarlanean bizirik irauteko eta inguru sozial eta fisikora egokitzeko. Gure hartu-emanen bitartekotzan erabiltzen dugun tresna nagusia hizkuntza da, argi eta garbi. Horregatik, mintzairaren agerpena komunikazio prozesu horrekin lotuta dagoela pentsatu behar dugu. Jaioberriak bizitzako lehen uneetatik bertatik sartzen dira hartu-eman komunikatiboetan. Ez dira hizkuntzaz baliatzen, baina negar eta barre egiten dute, aurpegiera aldatzen dute, e.a. Jokabide guzti horiek, helduaren ikuspuntutik begiratuta, helburudun ekintzat hartzen dira eta, ondorioz, negarrez hasten direnean, bizkor-bizkor jaten ematen diegu, jarrera aldatzen edo, besterik gabe, arduratu egiten gara. Berandu gabe, haurra jokabide horietaz baliatzen hasten da, hainbat gauza adierazteko; eta ama gehienek ondo jakiten dute zer dela eta negar egiten duen bere umeak.

Jaioberria heldu ahala, inguruan dituen gauzez eta haien helburuaz arduratzen hasten da. Era horretara, bere bizitzako lehen urtearen azken aldera, dagoeneko haurrek hainbat jolas jostagarritan parte hartzen dute ondoan dituzten helduekin ("Ikusten zaitut, ez zaitut ikusten!", gauzak sartu-ateratzea, dorreak eraiki eta botatzea, pilota bat jaurti eta bila joatea...). Joko hauek elkarriketaren legez arautu ohi dira (esate baterako, "Orain zeu zara

jokatzen. Orain neu naiz") eta beraietan parte hartzeko eta jolasa taxuz burutzeko aukera oso lotuta dago komunikazioa menderatzearekin. Hau da, zerikusi handia dauka parte hartzaile bakoitzak bere asmoak adierazi ditzan eta besteek uler ditzaten (eta alderantziz) aukerak eskaintzen dituzten prozeduren erabilpen

hotsen bat ateratzeko. Bigarren urteko lehen sei hilabeteak igaro ondoren, haurra ohartzen da askoz erosoagoa eta eraginkorragoa dela, lurrean eserita geratu, eskua sukalderrantz luzatu eta "ura" esatea. Hau da, asmo komunikatibo bat gauzatzeko orduan, aurreko prozedurak baino eraginkorragoak eta ekono-



*Hernaniko Mailus Haur-Eskola*

egokiarekin. Ez da batere bitxia, beraz, haurrek, jolas horietan, euren bizitzako bigarren urtetik aurrera, dagoeneko, "hori, hau, hemen, amaitu da" bezalako hitzak erabiltzea. Orobat, euren beharrizan biologikoetan (garbiketa, janaria, lo egitea,...) antzerako bide interaktiboetatik abiatzen dira. Esate baterako, haurrak 18 hilabete dituela, egarritu egin bada, helduari eskutik oratu eta sukalderra eramango du, hozkailua edo txorrota seinatu eta hitz edo

mikoagoak direla jabetzen delako agertzen dira lehen hitz horiek. Egia esan, "ura" lehenengoz esaten duenean, ez daki badela izaki bat, hainbat itxura ager ditzakeena (botilan, txorrotan, iturrian, errekan edo itsasoan) eta bere egarria asetzeko behar duena. Hitz hori esaten duenean heldu bat agertzen dela, likido bat ematen diola eta egarria asetzen zaiola besterik ez daki.

Apurka-apurka lehen hitz horien erabilpena erreferentziala egiten da eta haurrak adierazi nahi

dituen objetuen arabera erabiliko ditu hitzok. Horrekin batera, konturatuko da errealitatean agertzen zaion gauza ezberdinen edo bereizi bakoitzari (aulkia eta mahaia, arneketan joatea eta geldi egotea, eta abar) izen bat jar dakiokela eta, horren ondorioz, haurraren hiztegia gero eta

“uau-uau” deitzen dio behiari) edo mugatu egiten ditu (ez du onartzen etxeko txakurra ere -“Fufa” deitzen dena- “uau-uau” denik). Oraindik denbora asko falta zaio hitzak esanahiaren arabera egokiro erabil ditzan. Ziur aski, garapen horren eragileetako bat oso lotuta dago haurrak bere hitzak

errealitatea helduarentzat zein haurrarentzat berbera denez, haurra bere mintzairaren erabilpena moldatzen joango da helduak egiten dituen erabilpenetara.

Haurren hiztegia hazi ahala, hitz elkarketak eta kasuak (numeroa, denbora,...) agertzen dira. Haurraren mintzaiaren aurrerapausu gramatikalak oso lotuta daude bere hizkuntz eta ezagupen gaitasunekin. Batetik, ezagupenen garapenak errealitatea egituratzeko, fenomenoaren eragileak eta ondorioak ezagutzeko eta abarretarako aukera ematen dio. Nozio semantikoek gertakariak ordenatu eta sekuentziatzeko aukera ematen diote eta, hortaz, gertakariok bere mintzairan ordena jakin batean markatzeko aukera. Hala, esate baterako, baloi bati ostikoa ematen dion norbaiten ekintza, lineala dena (norbait pilotara hurbiltzen da, ostikoa ematen dio eta pilotak airean alde egiten du), hizkuntzaren bidez markatuko du, era linealean: “Jonek pilotari ostikoa ematen dio”. Bestetik, mintzaira jakin batean dauden arau morfosintaktikoak ezagutzen hasiko da. Bere hitzak arau horien bidez erregulatzen hasiko da eta, horretara, honelako gauzak esango ditu, esate baterako, gazteleraz, “rompido, jugo, sabo” beste hauek esan beharrean “roto, juego, sé”.

Hala, lehen bost urteetan, egituratzen eta gorputza hartzen doa haurrarentzat besteek bere



Hernaniko Maitus Haur-Eskola

potoloagoa izango da. Hilabete bakar batean, lehenago urte oso batean bereganatu zituen beste hitz ikasten ditu. Baina, aldi berean, bere mintzairaren erabilpen erreferentziala ez da beti egokia izaten eta, esate baterako, bere hitzak erreferente okerrekin erabiltzen ditu (esate baterako,

erabiltzeko moduari buruz dituen aldaketekin. Hala, haurra errealitateko alderdiren batetaz heldu batekin komunikatzen ari denean, helduaren mintzairan haurrak espero ez dituen hizkuntz erabilpenak agertzen dira eta, alderantziz, espero dituen asko ez dira agertzen. Era horretara, eta


asmoak uler ditzaten tresnarik egokiena den hori. Hala ere, oraindik bere mintzaira oso mugatua da eta, gainera, erabilpenarren aldetik, hizkuntzaz kanpo dauden eragileen kontrolpean dago ia-ia erabat. Hau da, bere mintzairak komunikatu nahi duen hori baino ez du adierazten, hitzez hitz, eta, ondorioz, akatsak izango ditu, ez bait da konturatzen mintzaira oso sistema ekonomikoa dela eta ez dela beharrezkoa erreferente guztiak aipatzea. Esate baterako, batzutan, izenordain pertsonalak sartuko ditu behar ez diren lekuetan “lehen ikusi zaitut nik zu”. Beste era batean esateko, haurraren mintzaira, hazaldi luze honetan, batik bat, adierazle gisa erabiltzen da eta hura ulertzeko hizkuntzaz kanpoko kontestua behar dugu.

5-6 urte dituela, haurra konturatzen da hitz berberak hainbat eginkizun izan ditzakeela bere mintzairan. Esate baterako, katalanez “un” hitza zenbatzeko (un, dos, tres,...) zein mugatzeko (“un coche” auto bat) erabil daiteke. Hasiara batean bi “un”ak hitz ezberdinak dira haurrarentzat. Baina hitz berberak eginkizun ezberdinak dituela konturatzen denean, gauzak oker esaten has daiteke eta izendatzeko orduan “un coche” ondo esaten badu ere, zenbatzerakoan “un de coche” esaten du. Orobat, adin horretako katalan-gaztelera haur elebidunek oker esaten dituzte posesiboak eta “dame todos los mios de casset-

tes” esaten dute. Garai horretatik aurrera, haur mintzairaren berantolatze prozesu bati ekiten zaio eta haurra bere gogoan hasten da kategori gramatikalak erakitzeko. Era horretara, bere mintzaira ez da izango hurrenez hurren jarritako hitz ilada bat, diskurtsoaren arloko zerbait baizik. Hala, izenordain bat erabiltzeko beste batzuen bazterketa eragingo du, edo denborazko marka bat erabiltzeko adizlagun jakin bat baztertu beharra eragingo du,... 5-6 urte inguru dituztela hasi eta min-

tzairaren kontrolgunea kan-potik barrura lekualdatzen duen garapen berri honek ez du gailurra erdiesten nerabezarora heldu arte, gutxi gorabehera. Une horretan, nerabeak gai izaten dira narrazioaren, argumentuaren, azalpenaren eta abarren aldetik koherenteak eta trinkoak diren diskurtsoak eskaintzeko. Bide luzea, beraz, egin behar dena eta 6-7 urterekin amaitzen ez dena. Aitzitik, orduantxe hasten da benetako bidea eta hura urratzen jarraitzen da, ziur aski, handik urte askora artean.

*“El desarrollo del lenguaje”. Signos 5/6, enero-junio, 1992.*





# **N**ORTASUNAREN GARAPENA BIZITZAKO LEHEN URTEETAN

*Lourdes Molina i Simó. (Bartzelonako Unibertsitate Autonomako Psikologiako irakaslea).*

Haurrek euren bizi baldintzekiko harreman interaktiboa duen prozesu dinamiko baten bidez eraikitzen dute euren nortasuna. Haurraren bilakaeran agertzen den interakzio hori aztertu eta aldatu egin daiteke hezkuntz prozesuan zehar.

Bilakaera hori hartu-eman dinamikozko hainbat gertakariz eragiten da eta bere izaera moldagarri horrek ikusarazten digu hainbat eta hainbat aukera ebolutibo daudela, oso konplexuak gainera, bai norbanakoaren mailan zein talde mailan eta baita maila sozio-kulturalean ere. Konturatzen gara pertsona bakoitzak, talde bakoitzak, kultura bakoitzak eta garai bakoitzak bere ezaugarri horiek isladatu egiten direla bakoitzaren bakantasun/aniztasun izaera bikoitzean.

Aldagarritasuna, aberastasuna, konplexutasuna eta, azken batean, "bakantasunaren barruko aniztasuna" (dibertsitatea) deituko duguna, bai izaeraren faktoreetatik eta bai inguruko faktoreetatik heltzen zaigu, eta batez

ere, bi horien arteko interakziotik.

Idazki honetan, zenbait konstatazio aurkituko dituzue gure garaiko haurraren bakantasun ebolutiboari eta kontestu kulturalari buruz eta, halaber, zenbait gogoeta bakantasun ebolutibo honetan eragin dezakeen hezkuntz jardunari buruz.

Aniztasun ebolutiboa nola ulertu eta beroni nola erantzun behar zaion aztertzen dugunean, kontuan hartu beharko dugu hezitzaile bakoitzaren eginkizuna zein den, hezkuntz egoera bakoitzean. Ez da ahaztu behar aniztasuna izaeraen aldagarritasunarekin harreman estuan dagoela eta, halaber, norbanakoaren esperientzien multzoarekin, bizitza bakoitzaren baldintza konkretuak kontuan hartuta.

Jaiotzean, jaioberriak giza espeziearen berezko egitura organiko guztiak dauzka baina heldugabeko egiturak dira eta ez dute gaitasunik inguru fisiko-kulturalak ematen dizkion bizi-baldintza konplexuetara egoki-

tzeko beharrezkoak diren interkonexioak finkatzeko. Bizitzea tokatu zaion inguru konkretuarekin dituen hartu-emanen bidez, heltze eta garapen prozesu luze bat bete beharko da, haurtzaroan zehar gradualki gauzatu-ko dena.

Sistema organikoek une bakoitzean lorturiko garapen maila (batez ere, sentimen, nerbio eta lokomozio sistemek lorturikoa) oinarritzeko baldintza izaten da gero alderdi psikikoa garatzeko, baina ez da erabakiorra forma, erritmoa, kalitatea eta maila gauzatzeko orduan. Guzti horri, ordea, eragin egiten diote bizitzan zehar aurkituko dituen bizi baldintzekiko interakzioek. Eta hauen artean, heziketa elkarrekin oinarrituriko prozesutzat jo dezakegu.

Hala, bada, menpekotasunetik burujabetzarantz, inplutsibatetik gogoetarantz, erantzun lokaletatik erantzun asoziatu, hausnartu eta kontzienterantz, nahastetik bereizketa kontzeptualerantz eta analisi eta sinte-

sirantz doan prozesutzat har dezakegu lehen urteetako prozesu ebolutibo hau.

Haurrak aurkitu edo sortuko duen egoera bakoitzak bere ahalmenak eguneratzea eskatuko dio. Eguneratze honetan haurraren nortasun osoak parte hartzen du eta baldin eta egoera horrek haurrak lehendik dituen ahalmenak baino zertxobait gehixeago eskatzen badio, garapenez baliatzeaz gainera, haurrak garatzeko ahalmena ere indartu egiten du.

Adibide bezala, ihauteri jaietan parte hartu behar duen haur batek, bere moztorro luzeegia laburtzen duen bitartean duen jarduna azter genezake.

Hasteko, esku artean daukan objektuen ezaugarriek mugatzen dute bere jarduna: bere gorputz keinuak guraizeetara egokitu beharko ditu; bere mugimenduak aurrez erabaki duen punturantz zuzendu beharko ditu, laburketarren emaitzak aurrez pentsaturiko patroari egokitzeko; guraizearen zorrotasunari, kartulinaren sendoerari eta trinkotasunari egokituriko mugimenduak eta indarrak egin beharko ditu; arreta guztia egiten ari den ekintzan jarri beharko du; besteek (haurrek eta helduek) egingo dizkieten iradokizunak ulertu eta kontuan hartu beharko ditu...

Horrez gainera, ziur aski, jakingura sortu zaio Ihauterien kontu hori zer den jakiteko eta, honez gero, abenturaren bat edo asmatuko zuen eta, beharbada,

moztortzat hartu duen pertsoniarekin identifikatuta sentituko da...

Guzti horren ostean (edo barrenean), bere motibazioa dago, eginkizun horren helburuek pizten dioten interesa, zerbaitetan parte hartzeko grina; azken batean, bizipen afektibo-emozionala.

Proposaturiko lan hori egin ahal izateko, hainbat egitura

beharrezkoa izaten da bizitzako lehen unetik bertatik. Izan ere, "interakzioa" da prozesuaren hari eroalea.

### Munduarekiko lehen harremanak

Jaiotzak aldaketa kuantitatibo handiak dakartzkio

*Hernaniko Mailus Haur-Eskola*



funtzional jarri behar izan ditu martxan, era koordinatu batean: sentimen funtzioak, zentzumen funtzioak, motoreak, hizkuntzazkoak, ezagutzazkoak, oroimenari dagozkionak, emozioenak, eta abar. Eboluzio prozesuak haurraren nortasun osoari eragiten dio beti.

Eboluzio hori lotura handia duten banakatze eta sozialtze prozesuen bidez gauzatzen da. Prozesu horretan "bestea"ren edo hurkoaren eginkizuna behar-

haurrari bizi baldintzetan. Uteroan dagoenean, gune babestu eta zainduan bizi da, etengabeko estimulazioak hartuz. Bere beharrian fisiologikoak sortu ahala betetzen dira amarekin duen hartu-eman zuzenaren bidez. Jaio ondoren, ostera, babes gutxiago eskaintzen dion ingurugiro batera aldatzen da, oso estimulazio aldakorra eta sentipen-anitza izaten du, bere beharrian fisiologikoak ez dira sortu ahala betetzen, oxigenoa lortu behar du, elikagaiak irentsi eta liseritu, gorotzak

kanporatu, gorputzeko tenperatura erregulatu...

Jaiotzarekin batera, burujabetza maila bat lortu du, orain artean amarekiko izan duen menpekotasun osoa alde batera utzi du eta zenbait prozesu fisiologiko eta neuropsikiko bere kabuz erregulatzeko gai da. Bai, baina oraindik ere inguruaren laguntza behar du oinarrizko elikadurari, atsedinari, jarrera aldaketei zein joan-etorrien beharrari erantzuteko. Bere kontura hartzen du arnasa, biriketako zirkulazioari ekiten dio, urdail-hesteak eta giltzurrunak

lanean jartzen ditu. Bai, baina beste norbaitek aldatu behar die jarrera, inork elikatu eta garbitu behar ditu eta inork erantzun behar die izan ditzakeen ezerosotasun edo egonezinei. Inguruan duten gizarteagandik oinarrizko laguntza hartzeko duten premia horrek eta inguru horrek laguntza hori emateko (edo ukatzeko) moduak, hau da, interakzioak, erabateko garrantzi psikikoa izango du, bai haurarentzat berarentzat, bai haren ardura dutenentzat.

Jaioberriaren jarrerak aztertzen baditugu, gelditasun edo atsedan egoeran dagoenean,

jarrera uzkurtoa eta asimetrikoa dela nagusi ikusiko dugu. Antza denez, jarrera hori hartzea bere gorputzadarretako giharreen hipertonizitatearekin lotuta dago.

Oreka ez galtzeko, bere gorputzenbor, gorputzadar eta buruarentzako euskarriak aurkitu behar ditu. Euskarri horiek kenduz gero, nahiz eta zenbait posiziotan, une batez, gorputza arteztea lortu, ezin dio zutik eusti ez buruari ez enborrari. Eta honen arrazoia ere, giharreen tonizitatearekin lotuta dago.

Jaioberriarengan ikus ditzakegun mugimenduak (bai iratzarrik dagoenean zein lo dagoenean) erreflexu, aldaketa toniko, uzkurdura eta antzerako indar deskargak izaten dira. Oso ekintza global edo orokorra izaten dira, gutxi bereiztuak, antza denez, eszitazio kortikalaren sistemak nagusitu egiten zaizkielako inhibizio prozesuei, eta nerbioen eroankortasuna oraindik gutxi garatua delako (nerbio-guneen eta zuntzen mielinitze prozesua oraindik hasi berria da).

Jardun orokor, jeneral, bereizketarik gabeko hau hauraren baitatik eta kanpoko ingurutik datozen estimulu sentipen-anitzek eragiten dute. Jatorri mekanikoa, kimikoa, luminikoa zein termikoa duten estimulu horiek zentzumenetara (barrukoetara zein kanpokoetara) heltzen dira eta sentazio organikoak, jarrazkoak, mugimenduzkoak, termikoak, dastamenekoak, entzumenekoak, orekakoak, eta abar

Oiarzango Iturburu Haur-Eskola





Hernaniko Mailus Haur-Eskola



eragiten dituzte eta haurrak horiei guztiei erantzuten die mugimenduarren bidez.

Astinaldi, negar, ikara eta abarren bidez nabari diren mekanismo motore horiek haurraren asetasun/asegaitasun egoeren adierazgarritzat hartzen dituzte helduek. Eta, era horretara, familiakoen edo haurraren ardura duten beste pertsona batzuen arreta edo arreta eza eragiten dute haurrek. Hala, ingurukoek elikatu egiten dute, garbitu, kulunkatu, jarreraz aldatu, negarrez utzi, zentzumen bati berariaz eragin,... Haurrarekin bizi direnak mugiarazte horrek (baita haiek jaramonik ez egiteak ere) aldaketak eta aniztasuna eragiten ditu haurraren estimuluetan (bai bere gorputzari dagokionez eta bai inguruaren aldagaiei dagokienez) eta aldaketa horiek zentzumenak iratzarriko dizkion grina berriak ekarriko dizkio.

Eta horra hor nola bihurtzen den jaio berriaren jardun motore bereizgabea (edo orokorra) inguru

sozialarekin komunikatzeko komunikabide lehen eta bakarra (nahiz eta berak nahita eragina ez izan) eta nola betetzen dituen, ondorioz, bizitzarako beharri-zanak eta nola berriztatzen dituen etengabe estimuluak.

Ezinbestekoa da haurraren bizitzako lehen asteetan, haren ardura duten helduak adi egotea haurraren adierazpen motorekin, horiek esan nahi dutena ulertzen ikastea eta lehen harremanak antolatzea, oinarrizko beharri-zanei, une egokian, erregular-tasunez eta behar adinako estimuluekin erantzuteko.

Horrela, ondoeza antzematen zaionean (gosea, lorik egin ezina, giharreen nekadura tripako minak, etab.) lagundu egin behar zaio gorputzaldi ona berreskuratzen. Baina mekanikoki ez erantzuten ahalegindu behar dugu. Garai horretan ager daitezkeen estimulu guztiak (ahots tonua, laztanak, masaiak, jarrera aldaketak,...) haurraren bizipe-netara igaro daitezke, bere

egonezinaren ondorioz, eta, gerora, esanguratsuak bihurtu berarentzat. Beraz, haurraren bilakaeraren une horretan derri-gorrezkoa izango da bere beharri-zanei erantzunez hartuko dituen estimuluak egoera bakoitzari erabat egokituriko estimuluak izatea, egoera bakoitzaren erregular-tasunez ematea eta hartu-eman afektibo-emozional lasaian jardutea.

## Lehen asoziazioak, lehen afektuak, zuzenduriko jarduna

Laster batean haurrak asoziazio mordo bat egiten ditu bere mugimenduen eta eskaintzen zaizkion estimuluen eta arreten artean.

Horrela, apurka-apurka egoerak eta estimuluak ezagutzeko eta bereizteko gai izango da. Adi-adi gauzez ohartzen hasiko da, inguruak eragiten dizkion sentipenak zentzumen multzotan antolatzen eta, ondorioz, aurrez finkaturiko erantzunak ematen, gero eta berariazkoagoak izango direnak.

Emozioen lehen berariazko sistema sortuko du, begiraden, irribarreen, ostikoen, ukituen bidez zein eskuak gauza eta pertsonenganantz luzatuz adieraziko duena. Guzti horiek edukin emozional argia duten ekintzak dira eta, horien bidez, haurrak bere arreta erakartzen duten objektuen bereizketan oina-




rrituriko hautaketa bat egin due-la erakusten dute. Bereizketa hau, pixkanaka-pixkanaka, ñabardura emozionalez aberasten da, aberastasan hori hainbat ekintza motatan nabaritzen delarik.

Haurrak inguruarekin dituen harremanetan agertzen den aldaketa kualitatibo honetaz ohartzeak, bestalde, haurraren inguruko pertsonen arretan ere aldaketa bat eragiten du. Txikiarekin bizi diren heldu eta umeek poza hartu ohi dute txikiaren jardun intentzionatu eta bereiztu hau, objektu eta pertsonen zuzendua izaten dena, agertzean. Eta poz horren ondorioz, haurreko hazaldian baino estimulu ugariagoak, biziagoak eta iraunkorragoak ematen zaizkio umeari. Hau da, komunikazio harreman bat finkatzen da.

Egoera afektiboen arabera (eta konpentsazio, orekatze eta defentsa mugimenduak egiteari utzi gabe) umeak estimuluen aurrean, jardun motore bereiztuak, berariazkoak eransten dizkio bere errepertoriari, helburudunak, egokituak, gero eta erregularragoak eta koordinatuagoak direnak: hankei edo besoei eragitea, irribarreak, gorputza maneiatzeari, gauzak astindu, eragin, jo, jaurti, erakarri, edo arrastaka erabiltzea, e.a. Ekintza motore guzti hauek eragin handia dute umearen bizipenetan eta eragin horren ondorioz, ekintza horiek errepikatze nahia sortzen zaio. Beraz, ekintza errepikakor eta zirkular bat agertzen zaigu,

estuki lotua pertzepzio zuzenarekin, emotibotasunarekin. Pertzepzio eta emotibotasun hori aldatzen joango dira, bereizten eta erregulartzen, denbora aurrera joan ahala, haurrak aurkituko dituen gauzen, pertsonen eta egoeren erreakzio ez-uniformeei esker.

Hala, esate baterako, haurrak kriskitina jotzen duenean hurek soinu jakin bat ateratzen du eta haurrak aukera paregabea izango du objektuen desplazamenduak eragiten duen ikusteko sentsazioan arreta jartzeko, desplazamendu horrek eragiten duen entzutezko sentsazioaz jabetzeko edo mugitzen ari den besoaren sentsazio zinegetikoez ohartzeko. Haurrak ohialezko panpina bat gora eta behera erabiltzen duenean, egoera horrek,



kriskitinarekin bezala, sentsazio zinegetikoak eragiten dizkio baina eragiten dizkion ikusteko sentsazioak ezberdinak dira. Entzutezkorik, ordea, ez dio eragiten. Beste aldaketa batzuek ere jabetuko litzateke, baldin eta eskuan hartzen duena, esate baterako, ahizparen ilea, amaren belarririkoa edo pure platerrean sarturiko goilarea balitz. Eta, ondorioz, apurka-apurka, hautaketak egiten hasten da gauzekin, pertsonekin eta egoerekin dituen bizipen hauen artean.

Beste horrenbeste esan dezakegu txupetea zurrupatzea, xurgatzea, zurrutedatea, gauzetatik tiratzea, bultzatzea, botatzea, astintzea, garbitzea eta abar bezalako beste jardun motorei buruz.

Jardun guzti horien euskarria eboluzio neurosikologikoa da (orain artean aurretiko esperientzietan oinarritu dena eta gero eta aberatsagoa eta zehatzagoa dena). Jardun horrek errezeptibitate sentsorialaren, nerbioen eroankortasunaren, analisi ariketen eta giharreen erregulazioaren garapena indartuko du eta eragin handia izango du, halaber, arretazko prozesu psikikoetan, memorizazioan, somaketazko identifikazioan, gorputzaren bizipenen bereizketan, denboraren eta espazioaren erabilpen praktikoan, gauza, pertsona eta egoeren bereizketan eta azkenik, komunikazio afektibo-emozionalean.

Hartu-eman horretan, hau-

rrak ekintza estimulatzaileez jabetzeaz eta haiei ordenagabe erantzuteaz gainera, bereizi eta hautatu egiten ditu ekintzok eta aktiboki parte hartzen du beraietan (adi-adi behatuz, euren gana zuzenduz, erantzun dirigituak emanez, gauzak berriro eginaraziz, esanahi emotiboa erantsiz...).

Komunikazio eta hartu-eman sistema berri hau finkatu dela ikusten dugun bezain pronto, garrantzitsua da helduek, oinarrizko beharriari lasai eta erregulartasunez erantzuteko ohitura mantetzeaz gainera, estumulu aberastasuna duen giroa eskaintzea haurrari. Haurraren ekintzei denetarikoa erantzunak, uniformeak ez direnak, ematen dieten gauza, espazio, pertsona eta egoerez gauzatu behar da giro hori. Horrela inguru fisiko eta sozialaren "tasunak" (biguntasuna, gogortasuna, mugimendua, gelditasuna, gozotasuna, leuntasuna, laztasuna, kutsadura, berotasuna, hotza, e.a.) bizi ahal izango ditu eta bere jardunatasun horietara egokitu.

Kontuan izanik haurrak inguruarekin dituen harreman guztiei edukin afektibo-emotiboak erantsten dizkiela, ezinbestekoa da haurraren izaera afektibo-emotibo hori inguru sozialak eskaintzen dizkion arreta eta estimuluetan ere aurkitzea. Komenigarria da, beraz, jarrera mekanikoak eta aurrez finkaturiko komunikazio ereduak alde batera utzi eta benetako afektua eragiten

Hernaniko Maitas Haur-Eskola



dituen ñabardura emozionalak aurkitzea.

Lehen aurtean zehar, bai zentzumenen bidezko sentipenek eta bai sentipen horien eragilea izan den ekintzaz ohartzeak ematen dioten atseginak moldarazi egiten dute bere jarduna gauza, espazio, pertsona, fenomeno eta egoera bakoitzera. Eta hala aurkitzen ditu orekari eusteko era berriak (gero eta burujabeagoa delarik) gauzak bereganatu eta heltzeko era berriak, bere nahiak, beharriak eta egoera emotiboak adierazteko modu berriak, besteekin harremanetan sartzeko modu berriak...

Bistakoa izaten da nola, bere gorputzak kanpoarekiko zein barruarekiko dituen harremanetan, haurrak gero eta burujabetza handiagoa lortzen duen jarrerak hartzerakoan eta batetik bestera mugitzerakoan: burua eta gorputzenborra arteztu eta zutik mantentzen du, zutitu egiten da, bere kabuz pasatzen da jarrera

batetik bestera, arrastaka zein katuka doa, oztopoak gainditzen ditu, e.a. Eta alderantziz ere bai, emaitza motore hauetariko bakoitzak (jarrera eta mugimenduzkoak direnak) gauzak bereganatzeko, behatzeko, bereizteko eta zentzumenen bidezko datuez ohartzeko aukera berri bat irekitzen dio.

Hala, esate baterako, jazarrita egoteak objektuak manipulatzeko aukera gehiago ematen du, eskuak aske geratzen bait dira eta begi-eskuak hobeto koordinatzeko aukerak ematen bait ditu; eta batetik bestera mugitzeak eskura ez dituen gauza eta pertsonen bila ibiltzeko eta espazioa dinamikotasunez bizi-tzeko aukera ematen dio.

Gorputzaren jardunari dagokionez, bestalde, gorputz masaren mugimendutik urrats bakoitzean segmentarioagoa, zehatzagoa, koordinatuagoa den mugimendu batera pasatzen da (haurra, orain artean, itsu-itsuan "bota" izan da gauza, pertsona eta

egoeretara).

Inguruaren eta haurraren arteko elkarrekintza guzti honetan, helduekin eta haur handiangoekin dituen harremanen bidez, haurra ahozko mintzairako zenbait esanahi ulertzen hasten da. Esaten dioten zerbait ulertzen du eta bere soinu errepertorioan apurka-apurka bereizten hasten da bere inguru sozio-kulturaleko ahozko mintzairakoak zeintzu diren.

**Irudi errepresentatiboak, ikerketa eta norbere buruaren eta hurkoaren aurkikuntza.**

Harremanak finkatzeko, gauzak adierazteko edo erabiltzeko, batetik bestera ibiltzeko eta abarrerako gorputza erabiliz, haurra bere gorputzaren batasun eta globaltasunaz jabetzen da, bereizi egiten ditu gorputz hori eta inguruko gauzen eta pertsonen espazioa, norbere mugimenduak eta horiek inguruan eragiten dituzten ondorioak, e.a. Hala, irudi errepresentatiboak egiten ditu buruan: bere gorputzarena, bere jarrerena, mugimenduena eta inguruarekin dituen harremanena, inguru hori osatzen duten pertsona eta gauzen ezaugarriena, ... Nolabait, gauzak, pertsonak, egoerak eta bizipenak, aurrean ez dituen ere, buruan gauzatzea lortzen du.

Gauza, pertsona, fenomeno eta egoeren somaketa zuzena alde

batera utzi gabe, bere gorputzaren mugimenduak kontzienteki zuzentzen hasten da, inguru zehatz-mehatz aztertzen eta erabiltzen, gauza eta pertsonengana bereizketa eta hautaketa bidez jotzen.

Gauzak gogoan irudikatze ahalmen honekin batera, jokabide imitatzaile, ikertzaile eta antzizipatzaile bat agertuko zaigu. Dena ikertzeari ekiten dio (gauzen ezaugarriak zeintzuk diren, pertsonen erreakzioak nolakoak diren, egoeretako baldintzak zeintzuk diren, e.a) aurrez harturiko eskemen arabera.

Egokitze lanekin jarraitzen duelarik, pentsamenduaren bitartekotzaz baliatzen hasten da. Hala dabilela, funtsezko garrantzia dute: aprobek eta hutsegiteek, norbere ekintzak apurka-apurka inguruko baldintzetara egokitzeko, irudimenak, imitazioak, egoera berri eta ezezagunetan baliabide ezagunez baliatzeak, gauzen eragile-ondorioen arteko harremanak ikertzeak, emaitzak aurrez antzemateak, e.a.

Sarritan, gogoaren bidez eginiko jardun errepresentatibo eta ikertzaile honek haurrak hartu duen bide hori indartzeko jokabidea eragiten du haurrarekin bizi direnengan.

Hazaldi honetan dauden hurrei -herri ohiturei jarraikantzuak, imitazioak, altzoko jolasak, kontuak eta abar proposatzen zaizkie ("Txaloekin musika jarraitu", "Hau aita da", "Non dago Jon? joan da", "Esan

agur...". "Non dauka min amonak?" eta abar). Ekintza horiek estimulatatu eta indartu egiten dituzte haurraren pentsatzeko grina eta haurrak besteekin dituen harremanak.

Bestalde, helduek ere, aldi honetantxe hasiko dira haurrari errealitatea ulertzeko eta hartara egokitzeko eskatzen ("Hara, begira zenbat auto!", "Nola egiten du txakurrak? Uau, uau!", "Joan, ez ukitu hori!", "Dena jaten baduzu, pasioan joango gara"...).

Aurrerapausu hori ahalbideratzen duten faktore batzuk honako hauek dira: burmuinetako eremu sentsorial, asoziatibo, antolatzaile eta motoreen konexioa, giharretako tonoren sendoketa eta erregulaketa eta nerbioen eroankortasunaren hobekuntza.





Norbere gorputzaren azterketa (zabuka ibiltzea, kolpeak hartzea, hortzak estutzea, gorputzadarrez baliatzea, keinuak egitea, atzamarrekin jolastea,...) eta honek kanpoaldean duen eragina direla medio, haurrak bere gorputzaren irudi bat egiten du, gorputz hori batasun autonomotzat jotzen duena, nahiz eta oraindik erlazio espazialez ez den jabetu (aurrea/atzea, eskuina/ezkerra, e.a.).

Ispiluetan edo argazkietan norbere irudia ezagutzea, berarentzat guztiz berriak diren ereduak imitatzea, esfintereen kontrola, lateralizazio progresiboa, norbere beharrianak (elikatzea, janzea, garbitzea,...) betetzeko orduan autonomia nahi izatea eta lortzea, handitzat har dezaten nahi izatea eta helduen zereginetan (erratzatan, oheak egiten, gauza bat konpontzen edo atontzen,...) parte hartu nahi izatea dira, besteak beste, haurrak bere nortasun propioaren nozioa duela erakusten duten frogak.

Aldi berean, kanpoko espazioan jarduteko dauzkan aukerez ohartzeak eta gauzez, pertsoez, bazterrez eta abarrez eratzen den espazio horren ezaugarriak aztertzeak espazioaren irudi zehatz bat sortzen diote: espazioa multzo orokor higiezin bat da, non mugitzen bait dira nire burua eta beste gauzak. Zutik ibiltzen ikastea ere oso eraginkorra da espazioaren bizipen eta ulermen horretan.

Har ditzagun haurrak egiten

dituen zenbait ekintza: arrastaka ibiltzea, bultza egitea, gauza bat beste baten gainetik mugiaraztea, bere burua edo beste gauza batzuk izkutatzea, baztertzea, etzatea, piltzea, iraultzea, hainbat bidetatik leku berera iristea, betetzea, hustea, zerbaiten barrutik edo gainetik igarotzea, biratzea, itzulipurdiak egitea, e.a. Ekintza hauei buruzko gogoetak, horien emaitzak aurrez antzemateak eta

laber, dagoeneko, ekintzak, nahiak eta abar proposatzeko gai izango da.

Kanpoaldera begira, edo zertan jarduteko dituen aukerak ikertzeko orduan, garrantzi handia izango du, oso goizetik, imitazioak. Imitazio hori gauzatzeko, aurrean dauzkan edo gogoratzen dituen ereduera egokitu beharko du bere jarduna.

Gogoan dituen irudiak ekin-



*Hernaniko Mailus Haur-Eskola*

ekintza guzti horiek adierazteko ahozko mintzaira erabiltzeak ordura arte praktikotasunari begira baino erabili ez dituen ezaugarri eta kontzeptuen generalizazioak egiteko bidea ematen dute.

Ikertzen eta aztertzen aritzeak, orobat, denborari buruzko ezagupena ematen dio.

Aurretik gertatu diren gauzak gogora ditzake eta geroago egingo dituenak imajinatu. Ha-

tzaratzeko duen ahalmen horren adibideak dira, esate baterako: besteen ekintzak errepikatzea, jolas sinbolikoa, imitazio diferentia, besteak bezalakoak izan edo besteak bezala egon nahia, irudiak edo ipuinak ikusteko gogoia, ipuinak entzuteko interesa, e.a.

Hizkuntzari ere eragiten dio errepresentaziorako ahalmen horrek eta hizkuntzaren arloan ere lantzen ditu ikerketarako sena, oroimena, kontzeptuen gene-



ralizazioa eta analisi eta sintesi prozesuak.

Funtsezkoa da haurraren bueltan dabilzan helduek aukera zabal eta ugariak ematea haurraren jardun errepresentatiboa ikertzaile hau gauzatzeko orduan, bere jarduna errespetatuz, hartu-emanerako egoera ezberdinak ugarituz, konfidantza eta maitasuna eskainiz. Ahalbideratu eta estimulatu egin behar da, bere eguneroko bizitzan, haurrak jostailuak ezezik, sukaldeko tresnak eta bere inguru sozio-familiarreko erreminta, gailu eta tresnak eta ohizko ekintzak ere ezagutzea: mahaitresnak, sukaldean erabiltzen diren tresna arriskugabeak, txorrota, komuneko katea, ureztontzia, etengailuak, kaxoiak, autobusa, trena, gurasoei erostetak egiten laguntzea, janztea, ... Eta, orobat, egin beharko litzateke familiakoak ez diren pertsonen ezaugarriekin ere (eskolako lagunen, auzokoen, lagunen, dendarien, postarien eta abarren berezitasunak).

Inguruko munduarekin duen hartu-eman hau indartzeko jokabide honek, ordea, hainbat eskakizun dakartza berarekin, hala nola, zenbait gauza eta egoerekin kontu apur bat izatea (baldin eta benetako arriskua badute), haurraren ahalmenetan konfidantza izatea, jasankorra izatea, ekintzarako aukerak erakustea, aurkitzen dituen arazotxoak bere kabuz konpon dituzan motibatzea, benetan behar duenean laguntza eskaintzea, bere arreta erakartzen

duen edozertan interesatzea...

## EKINTZARAKO AHALMENEZ JABETZEA

Ekintza motorea buruko errepresentazioarekin, kontzeptuekin eta hizkuntz jardunarekin koordinatzeko prozesu guzti honetan, lehenago aipatu dugun bezala, haurrak bere burua batasun bereizitza jotzen du. Ikusten du gai dela oinarrizko beharrezanez erantzuteko, bere kabuz jarduteko gai dela, gauza eta pertsonekin dituen harremanetan ñabardurak eta bereizketak egiteko gai dela, taldean parte hartzeko gai dela. Eta guzti hori berarekin bizi eta erlazionatzen den pertsona taldearen barruan dagoen batasun batek egiten duela ikusten du.

Konstatazio hauen ondorioz bere arreta ariketa motoretarantz,

hizkuntz jardunerantz, gauzek eta materialeek ematen dituzten aukera eta ezaugarrietarantz eta, halaber, bere buruak beste pertsonekin dituen aukeretarantz bideratuko du.

Hala, hainbat joko mota dago bere arreta erakartzen dutenak, hala nola: oin baten gainean irautea, zaldiak bezala trostaka joatea, herrenka ibiltzea, oinak elkartuta jauzi egitea, espaloi ertzarengainetik oreka galdu gabe joatea, marra bat zapaldu gabe ibiltzea, haur-parkeetako jokoetan orekari eustera jolastea, mailak igo eta jaiste, eskalatzea, hesiak edo oztopoak saltatzea, zerbait ostikoa ematea, zerbait jaurtitzea, pilota bat harrapatzea, trizikloan edo bizikletan ibiltzea, igeri egitea, zerbait nonbaiten doi-doi sartzea, zimurtzea, urratzea, ebakitzea, tolostea, pastatxoak egitea, hareazko gazteluak egitea, puzzleak egitea, eraikuntzak altzatzea, atzamarrak banan-banan kontrolatzea, zulatzea,



keinuak egitea, jarrerak kontrolatzea, beste gorputz baten kontrara jolastea, eta abar.

Ekintza artistikoak ere kontuan hartzen ditu: kantatzea, musika entzutea, musika tresnak jotzea, marraztea, margotzea, modelatzea, collageak egitea, zerbait eraikitzea, mozerroak egitea, mimikaz ipuinak, kantuak eta egoerak adieraztea, istorioak asmatzea...

Sarri agertuko dira ekintza sinboliko edo irudimenezkoak ere: gauzen izenak aldatzea, esanahiak trukitzea, jolas sinbolikoak egitea, antzeztea, zeinuak asoziatzea gauzekin, pertsonekin edo egoerekin, istorioak asmatzea, kontuak entzutea, eta abar.

Gauzen zergatiak edo "hori nola?" galdetzea eta gauzen eragileen eta ondorioen bilkaeta ere norbere ahalmenak eta inguruko munduaren aukerak argitaratzeko beharraren baitan datozen jokabideak dira.

Gauzak norbere kabuz egiteko eta bere taldetxoaren zeregin txikietan parte hartzeko gogoak hainbat eta handiagoak da, zenbat eta argiago daukan bere eraginkortasuna eta besteek beragan duten konfidantza.

Mundu fisiko-naturalean eta gizartearen barruan, norbere burua aurkitzeak eta honek edozertan jarduteko -eta egin-kizun propio bat izateko- dituen aukerez ohartzeak horien ahalmenak eta mugak zeintzuk diren sakontasunez ikertzeko beharra



Hernaniko Mailus Haur-Eskola

sortzen dio. Eta honek hainbat gatazka eta duda-muda sortzen dio. Izan ere, batetik burujabe izan nahi du, baina, bestetik, helduek kontuan har dezaten, onar eta babes dezaten eta lagun diezaioten gogoak dauka. Nahasketa antzeko gauza bat da, norbere barrenean eta besteek ordezkatzuten pertsonaren arteko gatazka moduko bat. Ingurukoek onar eta aintzat har dezaten gogoak hainbat exigentzi eta menpekotasunetara bultzatzen du haurra, hala nola: ukapen, aurkaritza eta burugogorkeriara, baina baita besteen gustua egitera eta amore ematera ere; konpetibitatera eta erasora, baina baita adiskidetasunera ere; norbere jabegoaren defentsara, baina baita eskuzabaltasunera ere.

Batzutan, talde barruan dagokion zeregina -eta zeregin horrek dakartzan jokabideak- bilatu beharraren ondorioz, estimatua eta onartua ikusten du bere burua eta adiskidetasuna sentitzen du. Baina, beste

batzutan, arbuaiatua, baztertua, ikusten du bere burua eta bekaizkeria eta jeloskortasuna sentitzen du. Baina, beste batzutan, arbuaiatua, baztertua, ikusten du bere burua eta bekaizkeria eta jeloskortasuna sentitzen ditu.

Apurka-apurka, bere burua, inguruko gauzak, pertsonak, fenomenoak eta egoerak ikertuz, inguruko munduaren aldagaien arteko barne harremanak ulertu eta onartuko ditu, bere nortasuna garatuko du, trebetasun eta eraginkortasuna bereganatuko ditu eta errealitatean parte hartzeko eta komunikatzeko baliabideak aurkituko ditu. Horren ondorioz, hainbat aurrerapausu antzemango dizkiogu honako arlo hauetan: koordinazio motorean (gorputz osoan eta atal bakoitzean, estatikoki eta dinamikoki); bere gorputzaren maneiu eta ezagutzan; lateralizazio prozesuan; zentzumenen gero eta zehaztasun handiagoan (koloreak,

formak, neurriak, distantziak, bolumenak, usainak, ukituak, hotsak,...); neurriaren kopuruaren, proportzioaren, distantziaren, kolorearen eta abarren nozioez jabetzeko orduan, eta gauzetan ezaugarri horiek aurkitzeko orduan; oroimenaren hedadura eta zehaztasunean; hiztegia ikasteko eta hizkuntzaren ahoskera, joskera eta berezitasun formalak bereganatzeko orduan; generalizazioak, kategorizazioak, bereizketak eta eragile-ondorioen arteko erlazioak egiteko orduan; norbere gurariez, sentimenduez eta emozioez jabetzeko orduan; besteen gurari eta beharrian jabetzeko orduan; helduen ekintzen eta gizarte harremanen ezaugarriez eta taldean bizitzeak dakartzan balore eta eskakizunetaz jabetzeko orduan, eta abar.

Bistakoa da, prozesu guzti horiek norabide eta ikuspuntu ezberdinak izango dituztela inguruak haurrari ematen dizkion aukeren arabera.

Helduak haurraren ikerketaren norabidea eta erritmoa behatu behar du, laguntza, adorea, aniztasuna eta aberastasuna eskaintzeko. Helduaren eginkizuna, batik bat, ekintzen antolamendua delarik, haurra apurka-apurka ingurugiroko aldagaiekin, pertsonekin eta euren zeregin eta beharrianekin harremanetan jar dadin arduratuko da: auzoan eta herrian zehar ibiltzea; beharrezkoa denean, zerbitzuak ezagutu eta erabiltzea (dendak, azokak, posta, arotza,

iturgina, hirizaina, suhiltzaileak, autobusak, metroa, trena, e.a.); gizarteko edo familiako ekintza hurbilenetan parte hartzea (helduekin batera bazkaltzea, bazkaria egiten laguntzea, hondatuta dagoen gauza bat konpontzen laguntzea, mahaia jartzea, loreak ureztatzea,...).

Garrantzi handia eman behar zaio giro lasaia mantentzeari, elkarrekiko begirunea izateari eta adiskidetasunari eta elkartasuna bultzatzeari. Horregatik, ezinbestekoa da helduak begirunea izatea, entzutea, arreta


izatea, komeni denean laguntza ematea, eta abar, bere ardurapeko haurrari. Izan ere, maitatua izatea eta, aldi berean, maitatzea (horrek dakartzan ondorioekin) bide egokia da norbere nortasuna erazgaratzeko, gizartearen baitan eginkizun gogobetekoa lortzeko eta hurkoari begirunea izateko.

*“La construcció de la personalitat en els primers anys de vida”. Butlletí del Mestres 201, gener 1986.*




Herraniko Mailus Haur-Eskola

**TALDE BAKOITZEKO EZAUGARRI NABARMENENAK**







## XOKOAK HAUR-ESKOLAN

Jose txo Etxeberria. (Mailus Haur-Eskola. Hernani).

Haur-Eskolako espazioaren antolaketa oso garrantzitsua da, zer lantzen dugun, nola egiten dugun gure lana, zer metodologia erabiltzen dugun, ... adierazten bait digu. Haur-Eskolan ditugun helburu pedagogikoen arabera, espazioaren antolaketa era batekoa edo bestekoa izango da.

Zergatik antolatzen dugu gela txokotan?

- Era honetara, Haur-Eskola, haurren beharretara hobeto moldatzen dela uste dugulako. Haurrari eskolan integratzen lagunduko dio, eta haurrak Haur-Eskola bere espaziotzat hartzea eragingo du.

- Gela txokotan antolatzerakoan, haurrak dituen gaitasunak jorratu eta garatzeko aukerak eskaintzen dizkiogu, era honetan estimuluak haurraren eskumenean jarriz, beti ere bere interes, behar, motibazio eta garapenari egokitzen badakigu.

- Sormena eta autonomia garatzen laguntzen du, haurrak une oro duelako egin beharreko lana aukeratzeko posibilitatea. Era

berean, espazioaren antolaketa askoz ere azkarrago bereganatzen du, behar duenetan behar dituen materialak erabili ahal izango bait ditu.

- Haurra soziablegoa izaten laguntzen du (hasiera batean joku paralelo bat antzematen da, gero biren arteko joku bat, ondoren hiruren artekoa eta, azkenik, eginkizunak taldean antolatzea eta banatzea). Baina, era berean, haurrak bakarrik egoteko beharra duenean, horretarako posibilitatea emango zaio.

- Hezitzaileari haurra behatzeko lana erraztu egiten dio. Haurren interesak eta ezaugarriak ezagutu eta horiei buruz hausnartzeko aukerak ugarituko zaizkigu eta, ondorioz, material egokiagoz, haurrarentzako espazio aberatsagoak sortu eta planifikatu ahal izango ditugu.

Zer da Txokoa?

Gela barruan material jakin batez mugatu den lekua da. Material horrek, jakina, antzeko ezaugarriak izango ditu (era-

bilpenari dagokionean) eta, haurraren ahalmen guztiak garatzeko balio beharko du. Txoko bakoitzak duen materialarekin, ekintza espezifikoen bitartez, arlo konkretu bat landuaz eta globaltasun metodoaren bitartez, haurraren garapen integrala lortuko dugu.

Nola bereganatzen du haurrak espazioa?

Jostailu guztiak haurraren eskumenean eta beti leku berean utzi behar dira. Baldintza hau oso garrantzitsua da espazioa bereganatzean, horrela ondorengo hau lortzen delako: haurrak zehastasunez jakitea jostailu bakoitzaren lekua zein den eta, gerora, haiek jasotzen hasten denean, bakoitza non utzi behar duen jakitea.

Jostailua beti leku berean egotean, haurrak, gogoak ematen dionean eta ondo irizten dionean hartu ahal izango du berak nahi duen jostailua, gelan zehar bila ibili beharrean. Eta garrantzitsuago dena, era honetara, haurra "Erreferentzi puntuak"

eskuratuz joango da. Guzti horrek bere inguruko espazioa, espazio horretarako objektuak, etabar menderatzen erakutsiko dio. Halaber, haurrak jostailuak berak espero dituen lekuan aurkitzeak, bere buruaz "ziurtasuna" izaten erakutsiko dio, jakina denez, haurrak kanpoko espazioa menderatzen duen heinean, bere barne izakera ere menderatzen baitu, horrek bere nortasunaren egitura antolatzen laguntzen diolarik.

Jar dezagun adibide bat honen garrantzia ulertzeko: Unai, hamabi hilabeteko haurra, Haur-Eskolan sartu eta oraindik katuka dabil, nahiz eta, irakasleak eskutik helduta, oinez ibil daitekeen. Lehenengo egunean ezezaguna egin zaio gelako espazioa. Lehendabizi bazter guztietara begiratu du, gelan zer dagoen aztertuz. Egin dituen keinuak eta jarri dituen aurpegiak ikusita, esan daiteke honelako zerbait galdetzen diola bere buruari: "hau leku arraroa... ez dut hemengo ezertxo ere ezagutzen... ez dakit non nagoen... honek ez du nire etxearen antzik, nire etxean dena ezagutzen dut..." Ihardun guzti hori bere amaren besoetan dagoela egin du. Gero, amak lurrean ipini du, zutitu da, amari eskua emateko eskatu dio eta amaren eskutik gela miatzen hasi da. Unai bazter guztietarantz abiatu da. Banan-banan miatu ditu bertako jostailuak, haiek hartu eta lurrera boteaz. Horrelaxe hasiko da hasiera batean arrotza egiten

zitzean espazioa aztertzen. Arretaz begiratzen badiogu, ikusiko dugu miaketa horretan "ziurtasuna" ematen diona, oinarrizko abiapuntutzat erabiliko duena, bere ama dela, egunak joan, egunak etorri, harik eta Unai gelako jostailu guztiak eskukatzeari utzi arte. Espazioa menderatzen hasten denean, espazio jakin batzuetara abiatuko da eta bertan aurkitzen dituen jostailuekin hasiko da luzaroan jolasten eta, jada, jostailua ez du, lehen bezala, ukitu hutsa eginda, bertan behera utziko. Eta horiek badira umeak espazioa menderatzen hasteko ematen dituen urratsak, bertan denbora asko eta asko emanaz, pentsa dezagun nola ibiliko litzatekeen gure haurra, astero-astero, gelako jostailu guztiak lekuz aldatuko bagenitu: ikasturte guztia espazioa menderatzeko ahaleginetan emango luke eta, gainera, ez luke lortuko,

denbora guztia norabidea aurkitzen xahutuko lukeelako, beste aurrerakuntza batzuren kaltetan.

### Txokoen garapena

Haur-Eskolako gelek zein txoko izaten dituzten eta txoko bakoitzean zein material mota erabiltzen den ez dugu azalduko, oso ezagunak bait dira (sukaldea, liburutegia,...).

Egitura aldetik, txokoak honela bana daitezke:

- Irekiak: Otik urte batera.
- Erdi txikiak: urte batetik bi urtera.
- Itxiak: bi urtetik hiru urtera.

### Otik urte betera arteko haurren gela

Hasieran, Otik urte betera artekoen gelan, txoko irekiak jartzen ditugu. Honekin lortu nahi



Hernaniko Mailus Haur-Eskola

duguna zera da: haurrak dagoen lekutik gelako edozein espazio ikusi ahal izatea. Era horretara, gela barruan dagoen pertsona, heldua, beti bere begien bistan da, nahiz eta haurrarekin ez egon, edo beste txoko batean egon. Txoko itxietan ezin da horrelakorik gertatu.

Txoko horiek irekiak izatearen arrazoia ondorengoa da:

Haurrek adin honetan ez dute -Piaget-ek dioen bezala- "objetuaren desplazamendu ikustezinak" aurrikusteko gai-tasunik. Adibidez: "haurra zortzi bat hilabete dituen hasten da "objetuaren iraunkortasuna" z jabetzen. Hau da, gelan dagoen pertsona heldua janari bila gelatik ateratzen bada, haurra automatikoki negarrez hasiko da eta irakasle hori itzultzen den unean (haurrari kasurik egiten ez badio ere) haurra bapatean ixilduko da". Jolas mailan ere berdin gertatzen da: "Jostailu batekin jolasten ari den haurrari jostailu hori kentzen badiogu, eta zapi baten azpian izkutatu, haurra zapia kendu eta jostailua hartzeko gai izango da (jakina, berak ikusi egin behar izan du aurretik jostailua non izkutatu den)". Honek adierazten digu, une horretatik aurrera haurra gai izango dela, ikusten ez badu ere, objektua (irakaslea, jostailua,...) badela jakiteko.

"Objetuaren desplazamendu ikustezinaz" jabetu arteko prozesua ez dugu deskribatuko, horren lorpenaren ondorioak baizik. Adibidera itzuliz "haurrak,



Hernaniko Mailus Haur-Eskola

hemezortzi hilabete ingurura iristen denean, ez du negarrik egingo irakasleak gela une baterako uzten duenean". Zer gertatu da? Haurrak ulertu duela, nahiz eta gelan zegoen irakaslea ez ikusi, pertsona hori nonbaiten badela eta itzuliko dela bere ondora. Haurra objektuak errepresentatzeko gauza da. "Objetuaren errepresentazioa" dela medio, haurrak desplazamendu ikustezinak kontuan hartzeko ahalmena izango du. Hau da, somagarriak ez diren desplazamenduez jabetuko da. Horrela, bere gogamenean espazioa "gune higiezin" bezala errepresentatuko du, bere burua ere bertan kokatuko duelarik.

Txokoak irekiak izateko beste arrazoi bat ondorengoa da: umearen garapena alor desberdinetan osatzen da (psikomotrizitatea, adimena, norta-

sun, hizkuntza,...). Baina, garapenaren alor horiek ez dira agertzen haurra bizitzen hasten denean, alor guzti horiek haurra hazten den neurrian joango bait dira sortzen.

Guzti honengatik, adin honetako haurren gelek txoko irekiak izaten dituzte. Gelak bi zati nagusitan banatzen dira: batetik, lo egiten duten espazioa dugu eta, bestetik, espazio zentral eta bakar bat zeinaren inguruan txokoak jarriko bait ditugu.

#### Urtebatetik biurtera arteko haurren gela

Bigarren urtean, haurraren garapenari eta "objetuaren desplazamendu ikustezina" bereganatzeari esker, espazio bereiziagoak eskaini diezazkiokegu haurrari. Orain, txokoek nor-tasuna hartzen dute eta fisikoki

espazio nagusitik (espazio zentral eta bakarretik) desberdintzen dira, une honetan, txokoak osatzen dituzten lekuak ederki mugatzen direlarik.

Haur batzuren eta besteren artean dagoen heldutasun mailak diferentzia handiak hartzen dituztela ikusirik, batipat haurren

espazio orokorra ikusi ahal izango dutelarik. Adibidez: "Etxeko txokoa" lau horma eta teilatu batez osatu beharrean gelako kantoietan bat aprobeztatuz, teilatua ipini eta falta diren beste bi hormak, hesi baxu batzuk eginez osatzen da.

Bestalde, nahiz eta haurrak dena globaltasunean hartu, une

aipatu dugun bezala, egokiena gela txokotan antolatzea da.


Adin honetako haurren beharrak kontutan izanik, gela bi zati nagusitan banatzen dugu: batetik, haurrak lortu duen autonomia (hizkuntza eta higidurazko autonomia, batipat) jorrazteko, psikomotrizitate lodia eta oinarriko hizkuntza lantzeko txokoen espazioa eta bestetik, nortasuna osatzen duten beste arlo guztiak lantzeko txokoak osatzen duten espazioa (etxea, musika, tresnak,...).

### Bi urtetik urtera arteko haurren gela

Gela hauetan dugun haurra nahiko autonomoa da, eta era berean, soziablegoa, lagunaren artean taldeak osatzen dituelarik. Hala ere, sarritan bakar dade uneen beharra ere adierazten du. Azken finean, bere nortasuna finkatzen ari den haurra da. Behar hauei erantzuteko, gela txoko erdi itxi eta itxiekien antolatzen dugu.

Guzti hau eta lehen esandakoak kontutan izanik, gela hiru zati nagusitan antolatzen dugu: batetik, psikomotrizitate lodia lantzeko txokoen espazioa; bestetik, nortasuna, harremanak eta hizkuntza lantzeko txokoak osatzen duten espazioa; eta azkenik, psikomotrizitate fina, inteligentzia,... lantzeko diren txokoak.

Amaitzeko esan behar dugu, jaio berrien geletan sortzen den txoko bakoitzak ere jarraipena duela.



Hernaniko Mailus Haur-Eskola

arteko adin desberdintasunagatik, txokoak erdi itxiak dira. Honekin adierazi nahi duguna honakoa da: txokoen mugak altuera txikikoak dira, bertatik haurrek gelako

honetan, garatu dituen arlo desberdinen oinarriak finkatuta poliki-poliki arlo horien gaitasunak banaka lantzen has daiteke. Hau lortzeko, hasieran



# **E** EGOKITZE EPEA. HAUR-ESKOLETAN UMEAREN INTEGRAZIOA ERREZTEKO ESPERIENTZIA BAT

(“Umezaintza” Haur-Eskola. Arrasate)

## Zergatik egokitze epea?

Haur eskoletan sartzen direnean, umeek ezagutzen duten errealitatean aldaketa izugarriak gertatzen dira. Bere mundu txiki horretan elementu berri batzuk sartzen dira.

1) Espazio fisikoa: Umea mugituko den espazioa ez da bere etxea, berarentzat erabat ezezaguna den gela berri bat baizik.

2) Helduak: Bere inguruan ikusten dituen helduak ez dira berak ezagutzen dituenak, beste pertsona ezezagun batzuk baizik. Hauek eskaintzen diote laguntasuna, baina ez dira umeak ezagutzen dituzten pertsona nagusiak.

3) Beste umeak: Bera dagoen egoera bereberean ikusten ditu beste ume batzuk, eta haien aurpegietan hainbat sentimendu: urduritasuna, estutasuna, harri-dura eta abar.

Mundu berri honetan sartzea oso zaila izan behar da berarentzat. Umea pasatzen da ezagutzen eta kontrolatzen duen

egoera familiar batetik, erabat ezezaguna eta kontrolatu ezin duen beste egoera batera. Hau, horrela izatean, derrigorrez, oso gogorra izan behar da berarentzat.

Horregatik etapa honi egokitze epea deitzen diogu.

## **EGOKITZE EPEA**

1) Lehenengo esan behar da, Umezaintzan, egokitze epe hori gurasoek umea matrikulatzen dutenean hasten dela. Giro ezezagun batean egongo denez, oso garrantzitsua ikusten dugu alde aurretik giro hori pixkatxo bat ezagutzea. Horregatik, ekainean eta uztailean, arratsaldeko azkenengo ordua planifikatzen dugu gurasoak umeekin etor daitezten. Horrela umeak, lekua, andereñoa, eta hurrengo kurtsoan berarekin egongo diren umeak ezagutuko ditu.

2) Hurrengo pausua irailean bertan hasten da.

Umeak Umezaintzara etorri baino lehen, gurasoekin bilera bat egiten dugu. Bilera horretan

lantzen dena hau da:

- 1.- Andereñoen aurkezpena.
- 2.- Zentruaren informazio orokorra.
- 3.- Zenbait azalpen:
  - egokitze epearen zergatia.
  - nola gauzatuko den geletan.
  - zein arlori ematen diogun garrantzi haundiagoa.
  - zein aktibitate eta material mota erabiltzen ditugun.

4.- Erizpide eta arau batzuk ezartzen dira guraso eta andereñoen artean, etapa hau errezagoa izan dadin eta, azken finean, umeari laguntzeko:

a) Umeen bila etortzeko orduak errespetatzea eta andereñoari oztoporik ez jartzea. Nahi bada, komentario txiki bat egin eta kitto. Sakontasun handiagoz hitz egin nahi bada, telefonoz deitu behar dute andereñoarekin geratzeko.

b) Umea Umezaintzan uzten dutenean umeari oso garbi esatea joan egiten direla baina geroago beraren bila etorriko direla.

c) Gurasoak, umea utzi

gero, umezaintzaren inguruan ez geratzea.

c) Gelara sartzen direnean umeari motxila kakoan uzten, amantala janzen eta abarretan laguntzea.

e) Andereñoekin komentatzea ze nolako erreakzioak izaten dituzten umeek Umezaintzan eta etxean.

f) Noizbehinka umeak gelan banatzeko gauzeekin bidualtzea.

g) Umea oinez etor dadin eta bere motxila berak ekar dezan ahalegintzea.

5.- Andereño bakoitzarekin umeari tokatu zaion gela ikustea.

3) Hurrengo Pausua: Umeak eskolan hasten dira.

3.1.- helburuak: Egokitze epe honetan gure lehen helburua umea pozik eta gustora eta ahal den neurrian seguru sentieraztea da. Helburu hauek, andereñoa, beste umeak eta espazio berria ezagutu ahala, lortuko dira apurka-apurka. Ekintza batzuk errepikatuko dira, ordu berean, modu berean eta material berearekin ezagupen hori lortzeko.

3.2.- Antolamendua: Umeak lehenengo esperientziaren aurrean, bere egokitze eza gainditu dezan, uste dugu bere sarrera apurka-apurka eta jarraipen batez egin behar dela.

Ume bakoitzaren erritmoa errespetatzen dugu. Horregatik, hasieran bi ordu egunean besterik

ez dira etortzen, baina, jarraipen bat eginez, ohitura batzuk hartu arte, eta geroago, prozesu baten barruan, hasiko da ordu gehiagorako etortzen (batzuk goizez etorriko dira, beste batzuk arratsaldean). Halaber, umeak arreta osoa izan dezan, taldeak oso txikiak izaten dira eta bi andereño izaten dituzte.



Herraniko Maitus Haur-Eskola

Aipatutako prozesu hori honako hau da:

1. Goizez edo arratsaldean, 2 ordu.
2. Goizez eta arratsaldean, 4 ordu.
3. Goizez, siestan eta arratsaldean, 6 ordu.
4. Ahal duena etxera joango da bazkaltzera. Bestela, hurrengo pausua egun osoz geratzea litzateke.

3.3.- Umeen jarrerak: Ume bakoitza mundu bat da. Batzuk errefusatu egiten dute eskola, beste

batzuk, berriz, nahiz eta errefusik ez azaldu, andereñoaren atzetik ibiltzen dira denbora guztian.

Beste batzuk, lehenengo momentuetan, ez dute errefusik azaltzen, oso gustora ibiltzen dira jostailuekin. Baina kontuz hauekin. Geroago azaldu ahal dira errefus adierazpenak (umea konturatzen denean egunero etorri

behar dela, ez dela egun batzuetarako bakarrik baizik lutzerako) eta orduan agertzen da errefusa.

Beste batzuk ez dute errefusik azaltzen, honelako jokabideak baizik: mututasuna, denbora osoa gelako ertz batean egotea eta abar.

Momentu kritikoak sartzeko eta irtetzeko ordua izaten dira. Beste batzuk aldiz ez dute irten nahi izaten.

### Errefus jokabideak:

- Negarra
- Gelatik irten nahia
- Amantala ez janztea
- Ama edo aita gogor hartzea
- Motxila ez kentzea
- Proposatutako jokuetan ez parte hartzea
- Urduritasuna

### Errefus hau etxean ere ager daiteke:

- Une oro arreta handiagoa eskatzea
- Ohiturak aldatzea
- Ohera joateko orduak aldatzea
- Esfinteren kontrolean eta abarretan

### 3.4.- Gurasoen jarrera:

Gurasoen jarrera oso garrantzitsua da. Gurasoak oso mentalizatuta egon behar dira. Haiek ere egokitze epe bat pasatu behar dute eurentzat ere aldaketa handi bat suposatzen duelako: pertsona ezezagun batzuekin utzi behar dute umea. Honen aurrean, hauek ere jokabide desberdinak azaltzen dituzte (batzuek erruduntasuna agertzen dute, eta abar).

Oso argi eduki behar dute, hau umearentzat ona dela, eta jarraipen bat egin behar zaiola umeari. Horrexegatik egiten dugu kurtso hasierako bilera hori.

### 3.5.- Andereñoen jokabideak:


Lehenengo esan behar da, lehen aipatu dugun bezala, talde bakoitzarekin bi andereño daukela. Orduan, umeek aukeratzen dute: batzuk batekin egoten dira eta besteak bestearekin: Norma-

lean umeak ikusi duten lehenengo pertsonarekin sentitzen dira gustorago. Geroago, berriz, batekin bakarrik gelditzen dira, eta besteaz ez dira gogoratzen.

Etapan honetan andereñoaren atentzioa indibidualizatu dago. Sarreran, ume bakoitzarekin egoten saiatzen dira: berarekin hitzeging eta abar. Gurasoak joaten direnean umea negarrez hasten bada, gurasoak joan direla eta gero itzuliko direla bere bila esaten zaio.

Gela barruan, andereñoaren jokaera, bai objektuen bidez bai

maitasunaren bidez, umei estimuluak ematea eta horrela harreman bat lortzea izaten da. Normalean, lehenengo momentuetan ume batek objektu bat hartzen badu, denbora batean objektu hori izango da berak gehien maite duena. Batez ere, umea bera eta bere erritmoa errespetatzen dute: Ume batek negar egiteko gogoa baldin badauka, negar egin dezake eta ez zaio ezer ere esaten. Batzutan eskatzen zaio negar egiten kanpora joateko. Jarrera depresiboak agertzen badira, andereñoi edozein gauzatan



Hernaniko Mailus Haur-Eskola

laguntzea eskatzen zaio umeari, baina behartu barik.

Eta, adibidez, esfinteren kontrolari dagokionean, ez dugu umea behartzen. Guzti hori berez etorriko da geroago.

### 3.6.- Gelako Ekintzak:

Umea gelan sartzen denean, material jakin batzuk ipintzen zaizkio lurrean, material horiekin bera bere kabuz ibiltzeko. Horrela, andereñoak atentzio zuzena eta indibiduala lor dezake:

- Zirkuituak.
- Arrastreak.
- Panpinak: gomazkoak eta abar.
- Trizikloak, eraikuntzak.
- Espumazko takoak.
- Dorreak, Txokoak.
- Sukaldeko txokoa.
- "Aktibicenter"ak

Eta zintzilikatuta egoten diren gauzekin ere ibiltzen dira:

- Globoak.
- Paperak, egunkariak.

Geroago, egunero-egunero, momentu bat bilatzen da denok elkarrekin egoteko:

- Danborra jotzen.
- Ipuina: Lehenengo ipuina "Lagunena" izaten da.
- Txontxongiloak.
- Plastilina, buztina.
- Abestea.
- Trena.
- Korroa.
- Ura edatea.
- Komunera joatea.
- Gauzak banatzea.
- Zirkuituak: andereñoa umeengana hurbiltzeko.

Ekintza hauek, hasiera batean, denbora laburrean egiten dira, baina denbora pasatu ahala, umeek denbora gehiago ematen dute ekintza hauetan. Era berean, ekintza hauek egiten diren

bitartean lantzen den espazioa gela bera izaten da, haurrari segurtasuna emateko. Lehenengo taldea eta gela finkatzen da eta gero pixkanaka joaten dira inguruak eta beste gelak ezagutzen.

Hasierako etapa honetan lantzen diren gaiak honako hauek izaten dira:

(Muralak erakutsiz)

- Mixkiren Murala: Pailazo bat Umezaintzara datorrena. Gela girotzen da; muralekin, zintzilikaturiko gauzekin, danborrarekin, pailazoarekin. Hemen, Mixkik egunero zer egiten duen azaltzen da. Honekin gorputz eskema, motrizitatea eta abar lantzen dira.
- Gela eta jolasa: Gelako espazioa lantzen da. Honelako kontzeptuak aipatzen dira: goian, behean, etab.
- Tina eta Miren: Umeek egiten dituzten eguneroko gauzak azaltzen dira: jaiki, gosaldu, autobusa hartu...
- Andereñoarena: Hau umeak lasaiago daudenean, giroa lasaitzen denean lantzen da. Mural honetan Umezaintzaren mundua agertzen da.

Egokitze etapa hau gairidituztat joko da umea konturatzen denean gurasoek ez dutela bertan behera utzi, Umezaintzan ordu bazuk egin ondoren berriro gurasoekin elkartuko dela.



Hernaniko Mailus Haur-Eskola



# K

## ANPOKO ESPAZIOA HEZIKETA ARLOAN

*Izaskun Madariaga. (Oiertzungo Iturburu Udal Haur-eskolako irakaslea)*

Irakaskuntzarako espazioak duen garrantzia planteatzen hasienez geroztik, asko eta asko sakondu da, ikertu, metodologia ezberdinak aplikatu etab. Azken urte hauetako boom-a txokoen bitartez lan egitearena dela esan genezake. Ikuspegi ezberdinetako txokoak izaten dira baina oinarrian guztiak batzen dituen asmoa, espazioaren eta materialen erabilera modu berri eta emankorrago batez antolatzea da.



Lan honetan aztertuko dudanak espazioarekin zerikusia du, baina ez gelako espazioarekin, kanpokoarekin baizik. Nere ustez, gai hau oso gutxi planteatzen da irakaskuntzan dihardugunon artean, ezer gutxi berritu da. Ez da filosofia berririk planteatzen "eskola biziaren" egokitasuna aldarrikatzen badugu ere. Kaleari etekin gutxi ateratzen zaio, batzuetan zaila egiten zaigulako, baina beste askotan aldaketarik planteatzea bururatu ere egiten ez zaigulako.

Nire helburua ez da lan teoriko bat aurkeztea, baizik eta gure haur-eskolako eguneroko praktikak apurka-apurka erakutsi diguna transmititzea eta besteak animatzea ildo beretik abia daitezen. Horregatik, has gaitetzen poliki-poliki gauzak ikusten.

Ikastetxe guztiek badute leku apropos bat, itxia -edo ongi kokatua, behintzat- izaten dutenez haurrentzat segurtasuna eskaintzen duena. Segurtasunarekin batera bilatzen den beste helburua atsedena eta joku askatzailea egin ahal izatearena da, horretarako zarranbilo, txirrita, hondar pila,

harriak, etab., jartzen direlarik.

Guzti hau "errekreo" edo gelan egiten dugun lanaren atsedengune bezala hartzen badugu, seguru aski, nahikoa dela pentsatuko dugu denok. Baina, aldiz, kanpoa edo kalea haurren heziketa-proiektu zabalago batean txertatu nahi badugu, hau da, esperientzia aberatsen gune bihurtuz -horretan ere ados egongo gara denok- espazio itxi eta seguru hori eta jostailu hori eskas geratzen zaigu.

Adin honetako haurrari gauza guztiak atsegin zaizkio. Gauza guztiak ezagutu nahi ditu. Dena miatu behar du, dena ikutu eta dantzan jarri. Edozein gauzari etekina ateratzen diola ederki aski dakigu beraiekin lanean jarduten dugunok. Haur hauen jakingura eta gauza berrietarako duten zaletasuna ikaragarria da, eta hain da haundia, ezen eguneroko material, joku, espazio ezagunak etab. oso estu eta eskas gelditzen bait zaizkio, aurkitu edo ikertzeko ezer gutxi izaten dutelako.

Kalean, aldiz, aurkikuntzak beti dira berriak. Gaur harri baten tamaina izango da atentzioa deitu

diena, edo euriak utzitako potxingoa, edo eskaparatebat, edo intsektu bat... zeinek daki. Dakiguna da, ustegabeko aurki-kuntzak arruntak eta egunero-koak direla, kalean ibiliz gero. Orobat, badakigu kalean barietate haundiagoko formak aurkituko ditugula, matiz gehiago dituzten kolore eta testurak, etab. Eta ez hori bakarrik. Kontutan hartu behar dugu, halaber, kalean topatzen ditugun gauza eta elementu asko, gelara eraman ezinak direla.


Kaleak duen beste balio bat, haurra naturarekin harremanetan jartzearena da. Abereak, landareak, zomorroak, ura, haizea,... Guzti honek erakargarritasun berezia du haurarentzat, bizia delako, haunditzen direlako, mugitzen direlako, adierazten dutelako, fruituak ematen dituztelako, aldakorrak direlako... Eta haurrari aztertzea gustatzen zaio, epaitzea, nolakoa den ikustea, propietate eta kualitateak deskubritzea. Ikutu, ikusi, usaindu, behatu, konparatu, esperimintatu, konpartitu, kontatu, etab.

Bestalde inguru aproposa suertatzen zaio irakasleari haurra ezaguera zientifikora bultzatzeko, egoera asko eta askotan planteatu ahal izango baitu haurraren mailari egokitutako hipotesiak, segidan egiaztatu ahal izango direnak. Adibidez: demagun zuhaitz batetik fruitu bat hartu nahi duela haurrak. Gure galdera zera izandaiteke: "Iritsiko

ote da nik besoetan hartzen badut?" Edo potxingo bat aurkitu eta harrika hasten direla: "Zein harrik egingo du zipriztinik handiena?" "Eta txotxa bat botatzen badugu?" Edo "paper bat botaz gero, zer gertatuko da?"... Era honetako galderek, sinpleak izan arren, beti hausnarketa berbalizatzea, eta inportanteena

ondoren... Hainbeste gauza!

Eta guzti horietaz gain, kaleak badu beste balore handi bat: kalea bera kontestua dela. Badakigu egiazko apendizaiak gertatzeko, haurrak egiten duen esperientziak zentzua eduki behar duela, berez esanguratsua behar duela izan, alegia. Zenbat eta kontestualizatuago egon haurrak



dena, baieztatu ahal izatea eragingo diete haurrei.

Kaleak, halaber, ahalbideratzen dio haurrari bere buruarekiko ezaguera, inguruan maneiatzeko dituen posibilitate fisikoen ezaguera, bere ausardia edo kokiltasunaren ezaguera. Ahalbideratzen dio bere emozioak bizitzea: beldurra, harridura, izua, poza. Ahalbideratzen dio bere afektibitate esparru zabalago batean bizitzea: animalia bat aurkitu duela eta, adibidez. Ahalbideratzen dio nekatzea, lasaitzea, izerditzea, bihotza saltoka sentitzea korrika saio baten

esperimintatzen duena, orduan eta zentzu handiagoa hartuko dio. Badago erlazio zuzen bat esperientzien kalitate/kantitatearen eta adimen edo inteligentziaren garapenaren artean. Ez da berdin bi urteko haur baten oreka, malda natural batean lantzea edo gelan jarriko diogun ohol batekin egindako malda batetan lantzea, adibidez. Hemen, sensoriomotore etapan dauden haurrak ere aipatu beharko genituzke. Aztertze gaia izango litzateke zenbaterainoko eragin aberatsa izango duen beraien hizkuntz jabetze prozesuan eta,



Oiartzungo Iturburu Haur-Eskola

orohar, adimenaren garapen prozesuan, beti ere egiazko esperientziak errealitatearen irudi egokituagoa emango bait die.

Bestalde, haurrak, kalean nahi duena aukeratzen du, gustatu zaiona, zerbaitengatik atentzioa deitu diona eta, interesa duenez, buru-belarri sartuko da bere esperimentazio joku horretan.

Azken puntu bezala, aipamen bat egin nahi nuke kaleak heziketa soziala lantzeko dituen balioez.

Badira urte dexente Hezkuntz Ministeritza bere eskola kontzentratuen politika ezartzen hasi zela. Ondorioz, auzoetako eskolak eta, batik bat, eskola ttiki guztiak etengabe ixten joan dira, kasu askotan gainera, eskola berri eta handi horiek kontestu sozialetik atera direlarik, hau da, herritik edo herri bizitza dagoen

ingurutik urrun, behintzat. Errealitate honek hankamotz uzten du lehenengo urteetako gizartearekiko txertaketa. Haurrak bere familia baino zabalagoa den komunitateko partaidetza bizi behar du. Bere mundu bakarra ez da familia edo eskola. Bere inguruan badago giza estruktura zabal bat, ezagutzen joan behar duena, eta bertan maneiatzen ere ikasi behar du, bai orientazioaren aldetik eta bai arriskurik gabe mugitzen ikastearen aldetik ere. Jendea ezagutzen joan behar du. Azken finean auzoa eta eskola, haurra eta gizartearen harremanetan jartzea besterik ez litzateke izango.

Esandakoagatik, garbi ikus daiteke kaleak baduela bere balio didaktiko propioa irakaskuntzan. Horregatik, guztiok animatzen zaituztet ahal duzuen neurrian

praktikan jartzera.

Zer egin? Nola hasi?. Hori eskola bakoitzean aztertu beharrekoa izango da, baina lanaren ondorio bezala honako puntu hauek azpimarratuko nituzke:

1.- Kaleari ematen diogun hezketa balorea zabaldu behar dugu, ludikotasuna gainditu eta haur ttikiarentzako esperientziagune bihurtu.

2.- Haur-eskoletako umeen ikasketak zentzudunago gerta daitezkeen, gela barrua baino gehiago bizi behar dute kalea. Horretarako haur-eskolek ordutegi flexiblea beharko dute izan, hau da, ordu jakineko "jolasgarairik" gabe.

3.- Haur-eskola bakoitzak duen ingurua ikertu beharko du. Zertaz baliatu daitezkeen aztertzeko, lan-programaketan txertatzeko, etab.. Hurbilean ezin bada baliabide egokirik aurkitu, orduan beste leku batzuetan bilatu beharko ditu eta behar diren irteerak antolatu.

4.- Haur-eskola bat kartzeko garaian, inguru soziala kontutan hartu beharko du.

5.- Jolas lekuak diseinatzeke garaian, kontutan hartu beharko du, txirrista eta zarranbiloaz gain jar daitezkeen beste elementu asko ere. Esaterako: ura, zuhaitzak, baratzeak, abereak, maldak, bideak, belardiak, soroak, harritzak, hondartzak, etxetxoak, etab., etab.

# G

## URASOEN ETA HEZITZAILEEN ARTEKO HARREMANAK

Carme Thió de Pol

Gurasoen eta hezitzaileen arteko harremanak oso beharrezkoak dira baina ez dira beti errazak izaten. Askotan, pertsona arteko harreman horiek arriskuan jartzen dituzten sentimendu eta emozioak agertzen dira. Gurasoei eragiten dieten sentimendu eta motibazio horiek ezagutzea oso lagungarria gerta dakiguke, ez bakarrik zenbait jokabide ulertu ahal izateko, baita gure sentimendu eta erreakzioak kontrolatu eta, inoiz, aldatu ahal izateko ere.

### GURASOEKIKO HARREMANAK HAUR- ESKOLAN

Artikulu honetan azaltzen diren gogoetak Esplugues de Llobregat-eko udal haur-eskolatako hezitzaileekin izandako elkarlanaren fruitua dira.

Gogeta hau hezitzailearen eta haur bakoitzaren gurasoen arteko harremanen inguruan egin dugu, hortxe ikusi bait dugu

sortzen direla, gehienbat, gatazka gehienak.

Gurasoekiko harremana, oso beharrezkoa bada ere, askotan oso gaitza izaten da. Haiekin dugun harremana, berez, lanbidearen kausaz sortzen da, baina, gero, sentimendu eta emozio mordo bat nahasten dira, harremana itxuraldatu egiten dutenak eta gaizki-ulertze, mesfidantza eta gatazkak eragiten dituztenak.

### GURASOEN ALDEKO ZAILTASUNAK

Gurasoen jokabide eta erreakzio batzuk hobeto ulertu ahal izateko, komenigarria da haiekin ditugun harremanetan eragin kaltegarria duten portaerak zerk eragiten dituen aztertzea.

Gaur egun, oraindik ere, sarri-sarri ikusten da seme-alabak haur eskolara eramateko arrazoi nagusia gurasoen lana izaten dela, eskolatzeak dakartzan hezkuntz onuretan sinestea baino gehiago.

Eta egoera honek, askotan, nahastu egiten ditu gurasoek eskolarekiko dituzten sentimenduak, errudun sentitzen bait dira eskolatze horregatik... Zenbat bider entzun ote diogu ama bati, haurraren ikusi dugun zailtasunen bati buruz ari dela, honelakoak esaten "beharbada, ez litzateke horrelakorik gertatuko nik lan egingo ez banu eta haurrarekin denbora gehiago egon ahal banintz".

Erruduntasun sentimendu haiek direla eta, gurasoek kezka beterik ikus dezakete eskola: batzuetan, gurasoek haurraren maitasuna galtzen ari direla senti dezakete. Haurrak eskolan etxean baina hobeto pasatuko duen beldur dira, baina, bestalde, haurra eskolan gustora egotea nahi dute, hura maite dutelako. Sentimendu bi horien eraginez, askotan, gurasoek jokabide bikoitza agertzen dute. Jokabide horren kariaz gurasoek haurrarendik banatzea gauza penagarritzat hartzen dute eta, ondorioz, hezitzailearekiko harremana zaildu egiten da.

Gogora ditzagun, esate



baterako, ikasturtearen hasieran urtero errepikatzen diren bi gertaera: zenbait gurasok luzatu eta luzatu egiten dute haurren hasiera-aldia eta ez dute aldegin nahi izaten harik eta haurrak negarrari ekiten dion arte; beste batzuek, hezitzailea adi ez badabil, ezer esan gabe alde egiten dute, euren seme-alaba begira ez daukatenean.

Bata zein bestea fenomeno beraren bi alderdiak baino ez dira, hau da, haurra eskolan uzteak dakartzkien kezken ondorioak.

Hainbat gatazka erakar

dezaketen beste bi auzi in-seguritate sentimendua eta umeei ez zaiela behar den besteko arreta eskaintzen ustea dira. Sentimendu hauen kariaz, inoiz gurasoek oso erreakzio garratzak izan ditzakete hezitzaileekin (zeinen gaizki hartzen dugun, amaren bat, bere seme-alaba gaizki dabilela azaldu ondoren, zarataka hasten bazezagu!). Baina jokabide hori eragiten diena kezka edo estura dela ulertzeak lagundu egin diezaguke jarrera lasai eta ulerkorra hartzeko orduan.


Maitasuna konpartitzea be-

ti da gaitza eta, askotan, horrek lehia sentimenduak eta jeloskortasuna eragiten ditu. Eta amak, umearekin egoteko astirik ez daukalako edo hezitzaileak beste ez dakiela uste duelako, bere burua gutxien badu, sentimendu horiek hezitzailearen kontrako erasotxo bihur daitezke egunero-egunero (arduragabetasun edo arreta falta salaketak, e.a.) eta horrek erraz-erraz errefus eta mesfidantza jarreretara eraman gaitzake.

Beste aldean, oster, jarrera axolagabea duten eta eskola paretik ahal duten bizkorren igarotzen diren gurasoak aurkitzen dira. Askotan, lotsa besterik ez da izaten, guk ulertzen ez dugun arren. Beharbada, arrazoa zera da, hainbeste eskatzen diegula gurasoei ezen, batzutan, ez bait dute euren burua denari erantzuteko gai ikusten. Izan ere, hainbat gauza eskatzen dizkiegu: zenbait ekintzatan eta batzarretan parte hartzeko, ordutegiak edo jokabideak aldatzeko... ziur aski, batzuetan, euren bizimoduan sartzen garela pentsatuko dute.

### HEZITZAILEEN ALDEKO ZAILTASUNAK

Ikusten dugun lehen zailtasuna, eta handiena, gurasoen hezkuntz eginkizuna onartu eta onestea da. Gure arteko zeinek ez du esan, behin baino sarriago



gainera, astelehenetan edo oporren ostean "ez dakit zer egin dioten haur honi, alferfuta ekarri didate". Horrelako adierazpen baten ostean zer dagoen apurtxo bat aztertzen badugu, konturatuko gara benetan dioguna zera dela "Nik ondo egiten dut, gurasoek txarto", "Ni asko arduratzen naiz, gurasoak gutxi", "Nik maite dut eta gurasoek...?".

Eta ez ote da arrazoi berberagatik izango, batzutan, gurasoek gure arauak onar ditzaten nahi dugula eta guri, ordea, ikaragarri kostatzen zaigula eurenak onartzea?.

Hezitzaileak berak ere izaten ditu lehia eta jelsia sentimenduak, batez ere, arrazoi bategatik edo besteagatik, eskola edo hezitzailea onartzen ez duten haurren gurasoekin. Esate baterako, zer gertatzen da, hitz egiten jakinda, eskolan hitzik esaten ez duen ume bat daukagunean eta amak etxean barabar hitzegiten duela dioskunean? edo eta, jan, jolastu, marrastu, e.a. nahi ez duen bat daukagunean eta amak etxean primeran jaten duela azaltzen digunean edo haurrak klasera etxean eginiko marrazki bat dakarrenean?.

Eta zer dago, haurrak edozertan zailtasunak daukanean, "errua" gurasoei egozteko joera zabal horren ostean? edo eta, zergatik ez ote dira aztertzen, sarriago, hezitzailearen eta hauraren arteko harremanek, talde dinamikek eta abarrek

dituzten eragozpenen zergatiak?.

### GURASOEN ETA HEZITZAILEEN ARTEKO HARREMANA INDARTZEKO JOKABIDEAK ETA EKINTZAK

Hezitzaileak beti izan behar du gogoan gurasoen hezkuntz eginkizuna. Ezinezkoak eskatzeak, goitik behera arrazoinduak badira ere, etsipena eta elkarrengandik aldentzea baino ez dakar.

Hezitzaileak ez ditu gurasoen portaera edo erreakzioak epaitu behar, haien jarrerak ulertu eta, beharrezkoa bada, laguntzeko asmoarekin, haiei eragiten dieten sentimenduak antzematen ahalagindu baino.

Bestalde, etengabe begiratu behar dugu geure barrenerantz, gure sentimenduak ere hobeto ezagutzeko, ez bakarrik gure sentimenduak kontrolatzeko, baita horiek aldatu ahal izateko ere.

Gurasoen beldur eta fantasiarekin amaitzeko, kome-nigarria da haurrak eskolan egiten duenari buruzko ahal den guztia zabaltasunezko jarrerez, hitzez eta irudiz gurasoei azaltzea. Zenbat eta hurbilagoa eta zabalagoa den eskola gurasoentzat, hainbat eta hobeto onartuko dute haurrengandik banatzea eta hezitzailearen betebeharra.

Gurasoekin dugun harremana benetako hartu-emantzat hartu ahal izateko, beharrezkoa da gurasoek guri azalpenak ematea, baina hezitzaileok ere badugu zer azaldu: aurrerapausu txikiak eta handiak, zailtasunak, poztasunak eta atsekabeak...

Hezkuntz betebeharrak gurasoekin batera lantzea izan behar da gure jokabidea, inoiz ere ez haien zereginak ordezkatzeko. Eta hori lortzeko, lehenengo eta behin, ulermen, begirune eta konfidantza giroa sortu behar dugu.

Askotan, ordea, eginkizun hori nekeza egiten zaigu, bakar-bakarrik egin behar izaten dugulako. Zenbat bider kexatzen dira hezitzaileak, jokabide profesional horri ezin diotelako etengabe eutsi! Zenbat bider entzun ote ditugu honelakoak "Haurren gorabeherak ulertu behar ditugu, gurasoenak ere bai, eta gureak nork ulertu behar ditu, bada?".

Eta arrazoi horixe da, beste batzuren artean, talde lanaren premia agerian uzten duena. Taldeak "eutsi" behar dio hezitzaileari, taldeak lagundu behar dio gatazkak aztertzen eta objektibatzen, taldean aurre egingo zaie gatazkei eta taldeak lagunduko dio hezitzaileari gatazkok jasaten. Ondo eginiko talde lanak gurasoen eta hezitzaileen arteko harreman onei eusten laguntzen du.

*"La relació amb els pares a l'escola bressol". Infància 47, març-abril, 1989.*

**B****ALOREDUN GAUZATXOAK***Carmen Cols*

Eskolaren eremuan, gauza txikiek -bakoitzaren jokoaren eta izaeraren arabera direnak eta portaera berriak zehazten eta ikasten laguntzen digutenak duten eraginaz ohartzeak duen garrantzia planteatzen du artikulu honek.

Gauzatxoak deritzegu, norbanakoaren edo bakoitzaren portaeraren eta izaeraren arabera agertzen direnez, agerian ez dauden eta inongo programan agertzen ez diren jokabide guztiei.

Norbanako bakoitzak, bere bizi osoan zehar, bizi izan duen inguruko errealitate soziokulturala bereganatu du. Errealitate hori bereganatu ahala, burmuinean gorde eta metatu da. Apurka-apurka, bizi izaniko sententzio, pertzepzio, irudi, esperientzi eta abarren bidez, kontzienteki edo inkontzienteki, pertsonak era batean edo bestean jokatzen dugu, besteen aurrean jokabide batzuk eta balore batzuk nabarmenduz. Hala, bada, eskolan ere, gauza bereziren bat transmititzen diguten gauzatxoez ohartzea, norbanakoaren -kasu honetan irakasle bakoitzaren- portaeraren

eta izaeraren menpe dago. Gertaerak hauei buruz gogoeta egiteak ekintzarako bide berriak zehazten eta ikasten lagunduko digu.

Jasotako bi gertaera aurkeztuko ditugu, adierazi nahi duguna hobeto azaltzeko.

**Haurrei zerbait banatu behar diegula eta**

Edozer izan daiteke, globoak, gailetak, lapitzak, gurai-zeak, pegatinak, paperak, e.a. Sarritan agertuko zaigu honelako egoera bat, txikiekin zein handigoekin. Txiki-txikitatik, material bat banatzeko moduak era bateko edo besteko baloreak bultzatzen ditzake. Adibide bat ipiniko dugu:

Behin, gaileta surtidoen kaxa bat banatu genuen. Denek txokolatzekoak nahi zituzten. Gorabehera handirik ez balu bezala, banatu egin nituen txokolatzekoak amaitu ziren arte. Baina, ai! A zelako muturrak jarri zituen halakorik gabe geratu zen neskatoak, arrazoiarekin gainera! Nork azaldu hari txokolatzekoak

amaitu egin zirela (horixe bait zen gure arrazonamendua!)!? Giroa baretu zenean, hausnarketa bat egin nuen, gertaturikoa ikusi zutenek entzuteko moduan. Gailetak banatzeko moduak berak eragin zuen egoera hura. Hori egia zen ala ez probatzeko, hipotesi bat egin genuen: haur bakoitzari gaileta bana eman beharrean, bakoitzari bana hartzeko aukera eman gero, ez zen egoera hori sortuko. Eta frogatu egin genuen hipotesi hori. Halaxe da. Izan ere, haur guztiek ez zituzten nahi txokolatzeko gailetak (guk uste genuen bezala), eta hauek amaitu zirenean ere ez zen egon arrazonamendu beharrik. Haur bakoitzak, hasieratik, bazekien gaileta bana har zezakeela, gogokoen zuena, eta amaitu arte bana hartzen jarrai zezakeela. Bakoitzean, haur bakoitzak ze gaileta geratzen ziren ikusi eta gustokoen zuena har zezakeen.

Gogoeta honek zerbait banatzen denean gertatzen dena behatzeko eta zehazteko balio izan zigun. Konturatu ginen haurrak gauza bat eman edo banatzeko



era bakoitzera moldatzeko gai zirela baina era bakoitzean ondorioak ezberdinak zirela. Ez dugu esango hobeak hala txarragoak, baina bai edukina eta banatzeko era bat etorri behar litzatekeela gure hezkuntz proiektuko azalpen teorikoarekin.

Otzara bat beti prest eta bistan edukitzeak eta emariak, inposatuz eman beharrea, negoziatuz eskaintzeak, gauzak banatzeko era aldatzen lagundu zigun. Otzara txiki honek beti gogorazten zigun banaketaren formula. Apurka-apurka desa-

gertu egin zen gauzak hartzen lehenengo izateko grina hori. Gauzak banatzea hezkuntz edukinez beteriko ikasgaia egin zitzaigun: haurrak nahi zuena jakin eta ezagutu behar zuen eta baita nola nahi zuen ere. Horrez gainera, beste taldekideekin negoziaturiko kantitatea errespetatu behar zuen. Berak nahi zuena amaitu zela ikusten zuenean, arazoa konpontzeko aukerak edo estrategiak bilatu behar zituen -eta irakasleak ere eskaini behar zizkion-.

Gogoan daukat zein pobrea

zen banatzen zenaren jaun eta jabe pertsona heldua izaten zen garaia, banatzeko era ere berak inposatzen zuelarik: "hartu, hartu, hartu..., isildu, isildu, isildu..., zuretzat badago, zuretzat ez dago,..." Ai! Gixajoa bihurri samarra zen umea!...

Lehengo umeek, askotan, matematikako, hizkuntzako eta beste asigaturetako ariketak primeran egiten zituzten baina banaketako ordua iristen zenean ez zegoen nola egin jakin beharrik, ezta banaketarako erizpideen beharrik ere.





Gauzak negoziatuz eskaintzeko moduak -eskolaren eremuan hainbat aldiz erre-pikatzen denak- eragina dauka norbere adimenaren eta moralaren autonomia lortzeko orduan. Beti prest egon den otzaratxo hori funtsezkoa izan da teoriarik for-mulatzen genuen hura (eta praktikan jartzean, gure hezkuntzak traizionatzen zuena, gure hezkuntza gustorago bait zegoen ematen eta inposatzen, negoziatuz eskaintzen baino) benetan gauzatzeko orduan.

### Gauzen banaketa espazioan.

Espazioa eta bertako osagaiak antolatzeko modua gure izaeraren ispilu moduko bat da. Antolamendu hori euren hizkuntza propioa duten gauzatxoak beterik dago. Esate baterako, apalategi batean edozein gauzari ematen zaion kokapenaren arabera (gorengo baldan edo behe-rengoan) gauza hori hartzea erraza edo gaitza izango da. Leku txiki batean, mahaia tolesgarria izateak edo ez izateak erraztasun gehiago edo gutxiago eskainiko du, aukera batzuk edo beste batzuk emango ditu. Plastilina, hurrek aurkitzen dituzten gauzak edo beste edozer gordetzeko ontzi batzuk baditugu, ez da berdina izango ontziok gardenak edo opakak izatea, horren arabera egongo baita hurrek barruan dagoena ikusi ahal izatea edo ikusi ezin izatea, eta ondorioz eskakizunak ere modu batean edo bestean egin behar izatea. Eta dudarik gabe,

askoz zerrenda luzeagoa egingo genuke, irakasleak gela antolatzeko dituen gauzatxoak aztertuko bagenitu. Baina ez da hori artikulu honen helburua. Jarraian, beraz, espazioarekin loturiko beste gertaera bat azalduko dut. Bertan distribuzio aldaketa bat egingo dugu, itxura batean behintzat, garrantzi handirik ez duena.

Bi urtetik hirura arteko haurrentzat programaturiko ekin-tzetako bat, ikasturtean zehar zain dezaten, etxetik landare bat ekarraztea da. Ekintza honi lorategia landu eta zaintzea deitzen genion. Astean behin, erregulartasunez, ureztatu egiten genituen. Landareak gelako espazio txiki batean, apalategi batean, kokatu genituen.

Beharbada, oso gauza polita zen, eta egia esan, denengustokoa

zen lorategia lantzea eta kartel batean zera agertzea, "asteaz-kenetan, lehenengo orduan, landareak ureztatu egin behar ditugu". Eta halaxe egiten genuen astero-astero. Baina ume bakoitzak bere landarea hartzeko ordua heltzen zenean, imajinatuko duzue zer gertatzen zen: hura zen hura landare eta ume pilaketa! Haur bakoitzari bere landarea ematerakoan, ume aldra handi bat eratzen zen eta, landareak ureztatzean, ia ezinezkoa zen baten bat busti gabe amaitzea. Gehiegi ziren aldi berean jardun bera zutenak. Apurka-apurka, denbora iragan ahala, ordenatu egiten zen gure jarduna, baina zenbait hurrek, derrigortu ezik, ez zuten ezer jakin nahi izaten bere landareaz, beharbada, batzuei, landareak nahigabe gehiegi eman zitelako eta, beste batzuei,...



*Hernaniko Mailus Haur-Eskola*

judanik landarea hil egin zitzaielako. Landare hauen distribuzioan aldaketa txiki bat egiteak egoera gatazkatsuen aldaketa eragin zuen.

Beraz, harrez gero, ikasturte hasieran, haur bakoitzak bere landarea ekarri ondoren, taldeari aurkezten zion eta, gero, haur-irakasle arteko harreman bat izan ondoren, landareari zein leku gustatuko zitzaiokeen galdetzen genion geure buruari. Kontsulta liburu bat geneukan. Zer azaltzen zigun liburuak?. Loreak zenbat argi behar zuen, ze leku mota zituen gogoko, gela barruan ala kanpokaldean jarri behar zen, eta



ur asko ala gutxi bota behar zitzaion. Informazio horren eta landare hartaz aurretik genekienaren arabera erabakitzen genuen zein zen lekurik egokiena. Komunikazio eta bilaketa egoera bat zen. Bai irakasleak eta bai haurrak gogoeta egiten zuten eta, une egokia iristean, beste gelakideei adierazten zieten non eta zergatik pentsatu zuten landarea jartzea.

Denetik geneukan, landaretza ikaragarria, gela barruan eta kanpoan banatuta. Landare bakoitzak bere lekua zeukan, haur bakoitzak oso ondo ezagutzen zuena; eta besteek ere bazez kizkiten gelakideen landareen lekuak. Itxura batean, gelara sartzean, landare pilo bat ikusten zen estrategikoki jarrita. Sarritan, nagusiek landareen antolamendu estetikoa antzematen zuten baina gutxi batzuk besterik ez zuten nabaritzen antolamendutxo horrek eragiten zuen banakako tratu pertsonala. Landare bakoitzak ezaugarri ezberdinak zituen, bakoitzak ur, argi eta abar, neurri ezberdinean behar zituen, beraz, ezin zitzaion arreta berdina eskaini, bakoitzak tratu berezia behar baitzuen. Haur bakoitzak leku bat zeukan, taldearen barruan, bere landarea jarri eta zaintzeko eta, ikasturtearen amaieran, landarea etxera eramaten zuen.

Otzaratxoaren kasuan bezala, landareen banaketak ere lagundu egin zigun teorian praktikan baino jantziagoa zen

formulazio hura hobeto ikusten: hau da, gure jokabidearen oinarria "irakastea" zela gehiago, haurrari bere kabuz jarduteko eta bere aprendizaiaren protagonista izateko bideak eskaintzea baino.

### GAUZATXOEK DAUZKATEN BALOREAK

Norberaren buruaren eza-gueran sakondu ahala, gure gaitasunez jabetzen joaten gara. Inguru sozial batekin dugun harreman, interakzio eta hausnarketak gararazi eta aldarazi egiten du gure jokabidea.

Era teoriko batean transmititu nahi ditugun balore eta jarrerren eskala bat formulatzeko gai bagara, egunero gertatzen diren gauzatxo hauek, sakontasunez planteatuz gero, lagundu egin diezagukete egiten dugun aurrerapausu bakoitzaren erakusgarritzat. Gure heziketak gauzen azterketa sakonagoa egiteko aukera ematen digunean eta era berriak esperimendatzeko eta gureganatzeko beharrezana sentiarazten digunean, gauzatxo horien ostean izkutatzen diren baloreak aurkituko ditugu.

*"Las pequeñas que traducen unos valores". Infancia 12, marzo 1992.*

## HAUR TXIKIENTZAKO LIBURU-GIDA (0-7 urte)



Irakasle Eskolako Haur Liburu Mintegiaren zuzendaritzapean, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak "Haur txikientzako liburu-gida (0-7 urte)" argitaratu du.

Gidan azaltzen diren liburuak honela daude sailkatuta:

1. Kontakizunak narratzera bultzatzen duten irudi liburuak.
2. Ezagupenak lortzera bultzatzen duten irudi liburuak.
3. Objeto-liburuak.
4. Ipuin eta alegia klasikoak.
5. Poemak, kantik eta igarkizunak.

Gidaren erabilera eta helburuak haren sarreran aurki ditzakegu.

Horrela dio:

Azken urteotan haur txikientzako liburu-gintzak ere badirudi bere leku propio eta berezia lortu duela liburuaren sustapen politika sozial orokorraren barnean. Hau dela eta, egoki iruditu zaigu arlo honetan nahiz euskaraz nahiz erderaz argitaratzen diren liburuak irakurtzen eta aztertzen hastea, irakasle, bibliotekari, guraso edo irakurle interesatu orori baliogarri gerta dakiokelakoan. Izan ere, gogoan hartzekoa iruditzen zaigu liburuak gozatzeko aldia ez dela irakurketaren aprendizai sistematikoarekin bakarrik hasten, askoz ere lehenago baizik, hots, haurra lehen pausoak ematen, lehen hitzak ahozkatzen eta lehen irudiak bereizten hasten den une beretik.

Horretarako, noski, liburuak ezagutu egin behar dira; gero eta maizago, onak zein ez hain onak, modu batera eta bestera, arrapaladan plazaratzen direnak ia inor konturatu gabe.

(Ez ezazue pentsa, edonola ere, merkatuan dauden liburu guztiak irakurtzera heldu garenik. Ezta urrik eman ere!).

Dena den, hutsuneak hutsune, interesgarria iruditu zaigu egin dugun ahalegina agertzea, areago kontuan hartzen badugu erderaz ere oso informazio urria dagoela.

***Oharra:** Udal Biblioteka eta Ikastetxe guztiek Gidaren ale bana jasoko dute.*

GUIA DE LIBROS  
PARA LOS  
MAS PEQUEÑOS  
(0-7 años)

HAUR  
TXIKIENTZAKO  
LIBURU-GIDA  
(0-7 urte)



1992



